

OLERTI 1991

Santiago Onaindia

Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta [Literatura 11 (1991), p. 129-224

ISSN: 0212-3223

San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

AURKIBIDEA

POESI JATORRA

| | |
|---|-----|
| Sugarria (Anjel Bidaguren) | 135 |
| Pozaren arian (Anjel Bidaguren) | 137 |
| Biribillegia (Anjel Bidaguren) | 139 |
| Udabarritar gogoz (Muniategi'tar Sabin) | 140 |
| Maite dot maite (Muniategi'tar Sabin) | 141 |
| Kurutza (Landia) | 142 |
| Olerki jaian (Solozabal'tar Paulin) | 144 |
| Gabonak (1984) (Luis Baraiazarra) | 145 |
| Izotz ondorena (A. Beloki) | 146 |
| Joalea (Undatz) | 149 |
| Gau ankerra (Zebruk) | 151 |
| Manterola'tar Gabirel (Muniategi'tar Sabin) | 153 |
| Bizitzaren poztasunean (Muniategi'tar Sabin) | 154 |
| Zorion poza dagerren olerki bat (Muniategi'tar Sabin) | 155 |
| Antza danez (Muniategi'tar Sabin) | 156 |

POEMAK

| | |
|--|-----|
| Bizi-hariaren txinpartak (A. Beloki) | 159 |
| Urola Ibaia (M. Ugarte) | 175 |

BERTSOLARIAK

| | |
|---|-----|
| Euskararen egoera (Gesalaga) | 187 |
| Itsasoa (Gesalaga) | 189 |
| Berandu etxeratzean (Gesalaga) | 190 |
| Muxika'ko probak (Juan Antonio Enbeita) | 191 |
| Egia eta zuzentasuna. Au da gure Jaungoikoa. (Enbeita'tar Balendin) | 193 |
| Egiaren lekoan, gezurra nagusi (Enbeita'tar Balendin) | 194 |
| Olerkia (Abel Enbeita) | 195 |

ITZULPENAK

| | |
|---|-----|
| Jainkoaren iruntza edo Mariaren esne garbia (Teresatxo Deuna). Elizea (Karol Woityla) | 201 |
|---|-----|

IRITZIAK

| | |
|---|-----|
| Olerkariak eta... (Aurre-Apraiz) | 211 |
| Ibiñagabeitia'tar Andima'ren karta batzuk | 213 |

POESI JATORRAK

SUGARRIA

Aritz zaar baten babesean nago,
erdi-lo, eguzkiari igesian,
laino zuri apurrenik ere bako
atsalde orian.

Lozorroan, itzal koloretsupean
ta pentsamentu zoroetan burua.
Ba nabil amets urdinen mozkorrean,
urratuz zerua.

Pozaren egoan, izarren pare naz
ta loraz beterik azur berdeak,
zein eder, ene joanean, laminaz
beteko bideak.

Biluzion adats orien argira
ba noa joan neure bide zoroan,
galdezka betirauneko artadira
ondo ete noan.

Izar, ez illargitik dot erantzunik.
Aidean galdu da nire itz larria.
Ta bakarrik entzuten ozen ozenik
biluzon irria.

Eta kezura bat dabilkit dantzatzen
ene arima zaarraren biotzean:
Bidai zoro ontan itzar ete naizen
ala ametsean.

Ta ertzik bako bide au nora doan
—misterioz bete— gura neuke jakin
Lamina biluzekin ete noan
ala zorginekin.

Ta nire amesetako artadia
aterik bakoa ete dan ala ez,
danontzat betiko gerizpe ezitia,
bake bete betez.

T'ene larriminen iturri danaren
kezkurarik gordiñena: Zelakoa
izango ete yakun betiraunaren
artadiko loa.

Poza —ametsezko elaien kabia—
zabukatzen dauan aizean leloa
ete da ba —firifara orlegia—
zugaizpeko loa?

Ala burdin latzen aginka gorria,
gudari ezezagun ta itun baten
odolean labanka eden gorria,
bere aintza jaten?

Ala birjina bategaz maite-joa,
begietan sua ta dizdira urdiña
dauzan lillura bigun ta xaloa
maite-minen griña?

Ala arte zaar baten pena ete
etsimendu gorrienaren ogean,
aizkolari zantarren bildurrez bete,
lorik ezinean?

Maspar baten gerizpean mozkor loa
ete eguzkia beroen danean,
edontzian betiraunaren ardoa,
puntu onenean?

Bidean bakarrik nora noa?
Ez itzarrik, ez lorik bako ametsa
ete nire artadiko abaroa,
firifara utsa?

Ete daki inork ezer berarenik?
Nire izu onek ez dau irudi nai
argi zurien bat izango ez denik
ene min onen zai.

Baña ta bakarrik ba da uts illuna,
ondo bako zuloetan galdua,
aizetío fin motel baten oyartzuna,
garrik bako sua?

Nora noa ibiltari gixajoa?
Itxaropenaren ertzetik jausia,
amildegirik amildegi noa,
trumoe ausia?

Billa eta billa zer aurkituko ete
zuresi illun orren beste aldean
Esti-etsian ene agoni triste,
izotzez betean.

Lanbro tarte dakusdan zerbaiten billa,
illunaren itzal zurien bat edo,
ez dakit zer dan argiño au ain illa,
mutu eta geldo.

Arboladiko Basajaun aaltsua,
zure tantaiddian ez ete niretzat
—odolean daroat gorako sua—
sokondotxoren bat?

Ara Jauna, ortxe gura neuke egon,
gora ia gora neure enbor sendoa
zure su betikoaren sugarri on
betiraunekoa.

Anjel Bidaguren

POZAREN ARIAN

I

Nire arboladi berdeetan
—millaka txori-kabi kunetan—
aspaldi da betiko urruna
samin zaarkituen lurruna.

Nire pago artean eztago
ez udazken, ez neguetako
margo ubeldun malxo igarrik
t'aizto zuridun ipuin zaarik.

Tantai lerden bat lez, zerura zut,
itxaropen zuriz biztu ditut
bi eskuetako atzamarrak
eta bizi poz onen sugarrak.

Narabil, arreskero, gora nai
zeruko izar guztien anai,
amets zuriak dardara betez
usapal urrumakariak lez.

Ba noa lanbroak urratuz ni
—su barriz biotz eta begi-nini—
litzeko zokorik ez dot gura
naiko bait gaurkoz bizi ardura.

Ba noa ta pago adarretan
millaka uso ditut kantetan.
Lengo larrimin moreen orde
azurrak daukodaz orri berdez.

II

Neure bi esku oneitan daroat dingili
egun oroetako goiz barriak igorri
oi deustan zorginkerizko akara ta lili
aroko pozaren zoramena, zuri-gorri.

Joan —ene ibili arinean— etorri;
ni olerkirik olerki ba nabil ibili
begira nundiko daun poz onek jatorri.
Odolean egon ezin baten kilikili.

Nik bakarrik dakit kanturik kantu noala
t'une bakoitza dala biziaren egia,
apurrago eta politagoen mirari.

Ta gauzarik xoil ta txikienean ba dala
milla eguzkiren urrez beteko argia
eunduteko bearrezko litzaken aina ari.

III

Bi begi zabalok ta biotz zabalagoak
argituko arima zar onen otz tximurra
ta maitasun ta por goriz ene jaiegunak
betiko urtuko dot negu illen edurra.

Ate ta leio eguzki barrien argira
kanpora daroat neure zaborren ustela
pozonek ezin baitau ezelan ere uler
joandako ene egunen oroitza ain uspela.

Biziaren besoetan, kulunkari zoro,
ibiliko argi ta illunekin taup baten,
pozaren urre beira dizizetan bildurik
neure olerkiok (bai ete gero?) neurtutzen.

Sustraien gun-gunetik datorkit bizi poz au,
enborran gora doakidan kilikilia,
argia on-onik adarretara zabaltzen,
orri-barriz ene biluzen ibilia.

Poza, ene poza, biotz beteko zirrara
odolik odol dabilkidan maite uyola,
erio baltza bera baño gogorragoa,
neure atsegin oroen iturri polpola.

Anjel Bidaguren

BIRIBILLEGIA

Motots gorri luzeak aidean,
 odolik odoleko bidean
 datorkiguz izu taldeak.
 Geure ate-ateetan doguz
 apatx baltzakin ostikopetuz
 bakearen aize berdeak.

Gure erri gaxo, erri miña,
 itxaso, arri eta burdiña,
 biotzaren iru taupada.
 Zure argiak itzali guran
 yatorku, ots gorridun lauoinkan,
 amorru-edoien samalda.

Ptsetan izotz gorri epela,
 etxeko irribarre ubela
 daroe illotzik lepora.
 Gure ate zaarren negarra
 igo da —erio deadarra—
 aize ikaratian gora.

Erri maitea, erri mindua,
 munduko ametsen eredua,
 gaur bildurra zure egia.
 Gure begi oroen itzala
 ta biotz zoroen poz utsala
 biur yaku zure argia.

Mendi goian ikarak orrore
 pistolak zulotu baitaroe
 goiznabarraren zitoria.
 Klean aizeek, min etsian,
 alperrik ekingo igesian.
 Jarraika berunen gorria.

Ene erri, txori abi bezela
 izandako bulararte epela
 gaur tristura baten zatia.
 Arris-arri, burdiñez landua
 —betikotasungura mutua—
 gaur ltxaro torre jausia.

Bide baster oro argiz utsik
 aspaldi ezbaita urre autsik
 sortu gure zeru morean.
 Zauri gorriak ditu aizeak.
 Goiz, eguerdi eta illuntzeak,
 danak dagi negar gurean.

Gaur askatasunaren izena,
 munduan danik itz gozoena
 zer da? uts usainik bakoa.
 Bere lastura loan etzanda
 gauagaz bakarrik gelditu da
 izuen ostikopekoa.

Ez dau goiznabarra ikusterik
 gorri baten biribilunetik
 izarrak alde deutsalako.
 Odoluztuz alaruka doa,
 min larriz, betondoko tiroa
 biribillegi sartu yako.

Anjel Bidaguren

UDABARRITAR GOGOZ

Negu otz gordin gogorrik aurten ez dogu izan.
ta, Udaberria gogoz, or dago ernemin;
lenengo loraz, (zuri, oriz...) poz-pozik, dilindan,
itxarozko bizitz emoikor bat goitu dedin.

Zugaitz billutsak beren soñeko argaletan,
orri barriak noiz ler, biziratuko dagoz.
barriro be dantzatzeko aizearen egoetan,
zomorro zarataz ta, txori abesti gozoz...
Elorriak lenen, gero, sagar ta madari
ta, abar..., dan-danak loraz apainduko dira,
ateak osoro zabalduz maitasunari,
gizarte laztankor, obeago bati begira.

Barritze barri baten gardendura bizikor
ta, ale betez buruturiko maitasuna...
gogai sendozko elburu emoitsu, argikor,
ta, eder batera garuazan eldutasuna.

Izadian lez lora bediz, gogo-biotzetan
gizatasunezko emoi, ogidun galburu
beteak, gizartean burutzeko benetan
ALKAR MAIRATUKO GAITUN OGI BEDEINKATU!!

Muniategi-tar Sabin

MAITE DOT MAITE

Maite dot maite, zugaitz barrien Jorrailleko
ezetasuna ta, Udazkenez negar dagin
orri orizkatuen aizepeko zinkurin
ituna, gero, banan-banan lurreratzeko..

Maite dot maite, zugaitz eguzkituen dirdaia,
Udaran, itzal-aterpe gozoa eskeintzen
ta berein txoriren bizitzadun egarria,
abesti samur ta ederrakaz aizeratzen.

Maiteago dot oraindik suak kixkailitako
egur garrazta zauritua, ain minberati,
gelditu izan zana bai, aldi baterako.

—Ez txori, ez aize, erreta ta, ah mirabe,
gelditu zana bide ertzean, errukarri,
aztutako maitetasun zar bat bezelaxe.

Muniategi-tar Sabin

KURUTZA

Zatozkit, goi arnasa,
illunak urratuaz
barrena argitzera;
eskutu aundienak
zaurituko dau lurra
min gorrietara.

Jesus Jainko Semea
maitasun uts eginik
aragitu ziñan;
munduak ez ekian
zure izate barri
illuntasunean.

Aspalditik jabiltzuz
otso arre antzera
ondoren gizonak;
egia ta guzurra,
aurrez aur jarri dira
ikusi eziñean.

Zuzentasuna dozu
zure bizitza aga
gizarte minduan;
gaiztakeriak ez nai
argi diztiratsurik
beren inguruan.

Ordua ez da eldu.
Zu gizartean zabiltz
eguzki argitan;
landerrak maite dozuz
arroak mintzen zaitu
joko maltzurretan.

Beartsuen izerdiz,
ondo, bizi naikoak
ziran arerio;
illobi zurituak,
kanpo eder itxuraz,
itzaren jario.

Ekiñalean dabiltz
gogoeta baltzetan
oratu naiean;
euren irudi baltza
ezaintzen doakie
gizarte aurrean.

Adiskidetasunez
egin nai zenduan
bildots aparia;
maitasunezko gaua,
Jaungoiko biurturik
ardau ta ogia.

Eskutu gaua datar
olibete mendian
oro arrimenez;
zu, arrenka Aitari,
bidaliak, barriz, lo
Judas zoritzarrez.

Ordu latza eldu da.
Gau illuna testigu
Judasen mosuan;
makillaz ta ezpataz
jende talde aundia
agiri aurrean.

Judas dator aurrera
laidozko mosuagaz
saldu dau Jainkoa;
lurrak dardara dagi...
Ai! jaio ez ba-ziñan
obe zan gaisoa.

Lotsagabeko gaua,
alderdi danetatik
giza gorrotoa;
irain, txistu ta liskar
presondeira daroe
Jaungoiko Semea.

Emen datoz burrukak;
erria astoratu da
ezbear erara;
eriotz eskatzen dau...
betor bere odola
gure esku gaiñera.

Pilato estutu da,
berezko larri miña,
biotza lerturik;
Jesus zuzenarengan,
iñola, ez aurkitzen
eriotz errurik.

Kurutzera daroe
bildots errugabea,
irrika, etsaiak;
biziaren jaubea
lurrera jausiko da:
itz negargarriak.

Giza gaiztakeriak
asmau al izan daberen
eriotza miña;
billotsik, lotsatuta,
ezpata, ultza, odool
erio samiña.

Jesusek itz bat dauka:
parkatu egiezu
euren txarkeria;
Salbamera egin da,
laster biurtuko Kristo
gizonen zoria.!!

Landia

OLERKI JAIAN

Euskal zelaia ikusten nago
larrosaz inguraturik,
euskal parnaso, aurrean, daukat
ertilariez josirik;
zuen abotsa arnas betia
ederrez dago jantzirik,
urterik urte its barriekin
euzko gogoia bizturik.

Emen dagoen ekin-taldeak
argia dau gidaria,
euzko bizitza ta elertia
beren gogo janaria;
gizon prestuak, olan, dabiltzaz
ernai jorratuz bidia
buruzagi lez doakiela
Onaindia jaun trebia.

Itxaso zabal, luze urdiña,
ametsgarria egoan,
kanta kantari mendi egalak
beren eder inguruan;
itxas ontziak boga ta boga,
gogotsu euren asmoan,
aita Santiren kaiku orleia
lenen doa egazean.

Tontor gaiñean nengoelarik
ametsez bete betia,
ezin lo egin begi begira
aurrez neukan izartia;
eder-zale ta olerkariak
xurgatzen doaz eztiā,
euren artean Onaindia da
goizeko izar argia.

Egun sentian eder egoan
izadiaren egoitza,
mendi egalez zugatz tantaiaik
inguraturik bizitza;
baratz orlegi eder jorian
urretxindor abes-batza,
aritz artean Onaindia zan
Gernikar euskal Aritza.

Solozabal'tar Paulin

GABONAK (1984)

1. Neguaren barnean
haize hotzak xixtu...
mezu onik dakarren
gaur ezin sinistu;
trumoi-hotsa nunahitik
ekaitzen arrisku,
baina Belenen zaigu
ixarño bat biztu.
2. Jaio-berri pottolo
kumatik irrika,
ixarñoa jostari
zerutik ñir-ñirka,
Aingeru-aldra, berriz,
poza aldarrika,
kanpaitxoek dantzari
bezate errepika.
3. Asto eta idia
hortxe lokuluxka
txit mantso eta mazal
ondoan daduzka;
begiz daude daztazen
zerutiko puska,
Jainkoaren baratzak
eman duen uzta.
4. Hor zaude maite-loan
iñoxo ta guri
zeruak eman digun
esperantza xuri,
Jainkoak jantzi duen
ahultasun iduri;
Haur polit hori, gugan
bakea ixuri.
5. Izadiaren dantza,
ametsen biztea,
Olentzerok irrintziz
dakar albistea.
Zein pozgarri zaigun gaur
Zure irixtea,
zeru bihurtu baita
lurralde trixtea.

Luis Baraiazarra

IZOTZ ONDORENA

BELAUNAK BELAUNARI

Agurrarekin batea
zorionak ematea,
beti izan da gure gogoa
ta borondatea.
Agur alaba maitea
komeni da jakitea
benetakoa dela guk opa
dizugun bakea.

Zorioneko eguna
gaur iratzarri zaizuna,
apal-apalik eskeini dizu
bideko laguna.
Ta izenpetu dezuna
maitasunaren gutuna
arantz artean, bainan arrosak
ugari dituna.

Batzuentzat da baldintza,
besteentzat ipuin utsa;
neretzat oso garrantzitsua
izan da ezkontza.
Eskaria ta eskeintza
bihotz barruko baietza,
sendiak sortuz munduai zutik
eutsi dion hitza.

Hau da gure gaztedia
sendiko udaberria;
norbaitek behar, zuk moztu duzu
lehen lokarria.
Zabaldu da iturria
sortzeko belaunaldia,
gaurtik eman nahi diogu gure
ongi-etorria.

Ez dut presarik zartzeko,
azken tarbernan sartzeko,
bainan konforme munduak daukan
saria hartzeko.
Beto bilobak hazteko,
zuhaitz zarra berritzeko;
zuek ekarri, amonak jantzi
aitonak zaintzeko.

Gauzak ondo eta zuzen
begira nola datozen,
oraindik gutxi aiton bat banun
ta ni haurtxo nintzen.
Dena ari da aldatzen
ni gaur hasi naiz ohartzen,
laister gerala antzerki bera
aldrebes antzesten.

Aiton naizeko gaua
aldarrikatzera nua,
bilobak hartu belaunean da
ze bertso saiua.
Parrezka jarri haur hua
edo har erazi lua,
bakar-bakarrik falta zaiguna
azken titulua.

Goibelarekin balantzan
irria jarriz zalantzan,
zerbait alaia nahi nuen kanta
ez nekin zer esan.
Badakizute nor naizan
agur eta ondo izan,
beraz helduko dira gauz hauek
has gaitezen dantzan.

II

LOIOLAKO IRRATIARI

Aberri sabel emankorrean
kokatutako azia,
erditze latz bat jasan ondoren
or artu zendun bizia.
Mende laurdena entzun zenetik
zure lehen irrintzia,
gaur bide lagun asko dituzu
baiña bakarrik asia,
mendi bideko argi bakarra
zerizun lasta zuzia.

Itzali piztu, sartu irtenka
bide askoko gidaia,
irautearen atsa zertan dan
ikasitako morroia.
Zu itzalita ito naiean
isekaz dabil etsaia
baiña galtzadan oitua zera
larre motzeko artzaia
euskal senaren lurra iraultzen
ari zeran erdi-zoia.

Zure zainetan odol egarriz
zulaka dabiltz eztenak
entzun dituzun otso oiua
ez dira noski azkenak.
Alaz gu zutik ta erne gaude
zure entzule laztanak
badakigu ta jakingo dute
ondorean datoztenak
nola bereiztu eta saritu
zu iraindu zaituztenak.

Egunsentiko agurrarekin
jotzen diguzu ezkila
erderaz, baiña or zabaltzen da
«Arrosaren leiatila».
Meza santua erri fededun
onen betiko kurpila
eta jarraian aiton-amonen
ta gaixo daudenen hila,
eskertzen dizut oientzat duzun
eguneroko opila.

Ordurik ordu berri laburrak
elkarrizketak noizbeinka,
sariketaren giro alaia
foru ta udalen sorta.
Errietako albiste xeak
ildakoen azken kanta,
Anjelusaren zubitik pasa
ta orra or ordubata,
zure berri on eta txar denak
igotzen diren errota.

Kultur urratsak, irakaskuntza
musikarekin nastua,
euskera landuz elkar lanaren
betiko bide estua.
Errosaiua, baserrigintza,
kirola ta apostua,
aozko literatura jaso
bertso paladaz ustua,
«Agur Jaunaren» ereserkiak
ederki aberastua.

Soin azaleko estalkia da
egin dizudan oiala
jakin badakit zure barnean
mami geiago badela.
Baiña kondairak aztertuko du
Loiola zure upela
denen gogoia egin ez arren
nik dudan uste apala,
Euskalerriak zure bidea
ongi ulertu duela.

Zilar dominaz saritu leike
zure atzoa ta gaurra,
biarkorako agian zerbait
dezu aldatu bearra.
Erdal kutsua apur bat jeitsi
euskera eman indarra
orrek bakarrik bereizten gaitu
ori da gure ikurra
urre domina lortuko duzu
torizu nere agurra.

III

ZIPITRIAREN OHOREZ

Lengoan artu nuen
zuen albistia,
lenengotik ametsa
zirudin guztia.
Etorri bear nula
gaur Donostia
saria jaso eta
au ez da txistia,
geien kosta zaidana
neuk sinestia.

Amona zena ta ni
biok «ssoro ssoro»,
labesu eta opil
berdin gari-soro.
Aurtzaroan neuk bizi
izan nun ezker
idaztea nai nuen
jakiteko gero,
bainan ordeztaririk
ez nuen espero.

Nere aurtzaroaren
urrats nabarmena
ilunpetan galtzea
au zan nere pena.
Bidez, euskerarentzat
ez al da omena?
Ai! Bizirik bazeunde
gaur nere amona
sari au banatzeko
biok erdibana.

Zipitria nai dizut
sekretu bat erran
sortu nintzan baserri
artako ganbaran;
aspaldi itzaldi bat
zenuen zuk eman
gaur eskertu nai dizut
al nezaken eran,
konturatu zaiyezen
zeinen lagun geran.

Amak eman oi zidan
zurearen berri,
ni oraindik ez nintzan
mundura etorri.
Zure itzak jan nitun
ao ta belarri,
naiz ta gaur ez dizudan
lorerik ekarri
inoiz ez dut aztuko
zure urrats ori.

Maite izan zaituzten
betiko lagunak
zuretztat eratzuten
dituzte omenak.
Zu baitan idazteko
ipuin ta poemak
batez ere aurtxoak
egin dituztenak,
oiek dira zuretztat
lorerik onenak.

A. Beloki

JOALEA

Joale, joaleiño,
erriko beilaria,
laiñoan galdurik
soiñuen miraria.
Biotz-gogoan zaukat
olerkari neuria,
ekarstazu asperen bat
maitasunez eria.

Nire oroitz kutunenak
egan dagi zugana,
noizbait idoroteko
maite-maite nuana.
Ene amesen seaska
izan zindudazana,
jo niretzat barrero
zure brontzezko arrana

Ekarstazu ostera be
amaren mintzo argia,
zerura nindaroan
bere eresi garbia.
Urrez bete egidazu
urteen uts andia,
eta zidarrez ase
zorion-egarria.

Zure abotsak dakarstaz
laguntxuen didarrak;
ai ene, non dagozan
galdu ziran izarrak...!
Garden dakustaz orain
sute alaiaren garrak;
geldi zaiteze enekin
atzoko irri-negarrak...!

Biotz-barruan zaukat
amesen kantaria,
jo egizu gaur niretzat
zure leiar-aria.
Apa-laztandu naizu
joaletxu neuria,
idoro daidan noizbait
nire oroitzen bitxia.

Esaidazu, joale,
larran ete kantari
kilker ijito areik
oi bezela ari ta ari.
Olan ba'litz, artuizu
nire biotz-eskari,
jo dagien niretzat
euren zidar-mirari.

Esaidazu, enetxua,
ume musu-gorriak
jolas ete dagien
arin ete biziak.
Ekarstazuz barriro
arein didar zoliak,
bare dakidazan gaur
bakartasun-zauriak.

Esan, dorre-txoria,
neskato begi-otzanak
oindiño ete dabezan
betseiñetan laztanak.
li lakoak ziran,
palmondo baltzaranak
lili garbi politak
gaur niretzat joanak.

Esan egistazu, arren,
joale abeslaria,
zutik ete dagoan
itzi neban abia.
Eresiz esaiozu
astiro ta garbia,
biotzean dodala
maitasunez josia.

Lastanduizuz maitero
nire guraso-obiak,
an bakean baidagoz
aspalditik suntsiak.
Zure ots ezitsuekin
nire otoitz isiltiak,
bil gaitzean zeruan
betirako biziak.

Joale, joaleiño,
dorrean begirari,
aizearen altzoan
eresien sorkari.
Laztan naizu polliki
nire aingeru abeslari,
bear zaitut, ai ene,
nire atzoko oroigarri...!

Undatz

GAU ANKERRA

Gabeko ordu biak!
 Gau illuna...!
 Izarrik ez dago ortzian.
 Ixillik dago mundua...

Gabeko ordu biak!
 Lo, nasai, ardurabakoak...
 Erloxuaren tik-tak mintzobakarra,
 ormatik dingilizka,
 baituen gogoak astintzen.
 Itxaropen ausien gaba!
 Giltz-otsak baitegian
 il-gaien billa urduri...

Gabeko ordu biak!
 Biotz-taupadak ziega illunetan...
 Oiñotsak, astiz, baituen ate-aurreetan.
 Ez dagi iñok itzik,
 orma umeletan ez dabil oiartzunik:
 Ixil eta larri aroa
 erriaren gau ankerrean...

Gabeko ordu biak!
 Amil-ertzean, zutunik, ilgaiak
 mille pentzamenturen matazean maratuta,
 ludiz-andiko ixillaren zaratetan,
 erdi-konkor,
 gau baltzenari adi,
 betiraunerako suzko deiak noz entzungo.

Gabeko ardu biak!
 Ume! eta ixil dagoz ormak,
 gorrotoaren umeltasun larrapaskorraz.
 Maitasunaren lorratzak
 urratu ditu gau baltzak
 eta agertu da Balbea,
 gau-lapurren antzera,
 begitzar itzelakaz,
 maitezko arnasak ebagi guraz,
 aiotzaren sorbatz zorrotza
 eskuetan jauzkari...

Gabeko ordu biak!
 Erruki bagako gau ankerra!
 Illun baltza zauritzen
 diardue, bizkor,
 sastakai edenduak
 eta opagaieri adi dagoz
 Balbe'ren begi sarkor eta itzelak,
 samiñez beteriko
 ixil eskutuan.

Gabeko ordu biak!
 Ittamuko itxarote larria!
 Sastakaien artean, lokarriaz,
 kate astunak bizkarrean,
 bost abertzale
 sartu dituez,
 birao ta bultza,
 erailleen belbil itxusian.

Gabeko ordu biak!
Bideetan ez dabil arimarik:
Lo datza erria,
ardura bakoen lo nasaian;
ez dakie, ba,
gorrotoaren barririk
ez dantzue
il-gaien deadarrrik.
Eta joan doa,
aurrera ta aurrera,
erruki bagarik,
iltzailleen belbil zikiña
gorrotoak zuzendurik.

Gabeko ordu biak!
Erioa'ren zain dago,
baso-ertzean,
illerriko ixiltasunaren bakea.
Eldu da, il-gaiakaz, belbil baltza
eta jaurti dituez, amurruz,
opagaiak lur otzera.
Ixillik dagoz,
ixil zaratatsuz,
ilerritko arriak...

Odolezko goizaldea!
Neke, samin, atsekabe ta
larritasunez goizalde urratua!
Narriotu dabe illen bakea
edendun zizpa luzeak
eta odolustu dira
aberriari eskiñitako
bost gasteren bizi gordiñak.

Egun-senti larria!
Odolez gorri
agiri dira zelaiak
neguko aro izoztuan.
Illun dago sartaldearen bekokia:
oiñaztu ta ostotsez agertu da
zeruen aserrea
eta urduri eskutau dira
iltzailen esku odolduak.

Zabruk

MANTEROLA-TAR GABIREL

Manterola-tar Gabirel. Zeanuritarra.
Gorbeia ren sorbaldape osasungarrian
sor ta zuzpeltu zan aren gogamen goitarra
baserri lurrunezko erri ikusgarrian.

Aritzak, pagoak eta gaztañadi ederrak,
goiberatu ziran beren negu ta bai udaz
aren mutil-aroko osertz, etxè bazterrak
orduko artzaingo eta arto garitzakaz.

Bere ikasketak gero, Gazteizen egiñik,
ogeitalau urteko zala abadetu zan
erriaz eta euzkerez maitemindurik
abadetzako gurutzea leporatu eban.

Ogeitabi urte luze Eibar'en jaupari,
eta, beste amar bat urrun, an, Ingalandan,
kristautasun eta Aberriaren mezulari
azkatasun itxaropenezko maite-dantzan.

Amaren aoz aren biotzean euskerea
sartu ta betikotu zan errotsu ta, sendoro,
amaren laztanpean maitasunez gozoro
ikas izandako arbasoen berbeteta.

Argia argitu zan aren gogo argian
ta, sinismenezko indar eta sentipenez
mintzo errikoi ta laztan maitagarrienez
janaritu zan Jaungoikozko iturri garbian.

Ta, euskal senez ekin eutsen lanari, gogoz,
Jaungoiko-Zalen, Ekin'en, Yakintza'n ta, abar,
benetako gogo, zintzotasunez, su ta gar,
euskerea argi ta garbi jasotzeko asmoz.

Adimena argi, biotza sutan, labe gori,
ipuiñiak, bertsoak, goi-izpidun arnasaz
idatzi ebazan errezkuro ta ugari,
apaltasunezko bizitasun eder bataz.

«Aterkia» izeneko olerki begikoan
diñoan lez zelan izten dan bazter batean,
erdi aztuta euririk ez dan bitartean..
Arek ez! Euskerea beti zeukan bai, gogoan!

Bere garaiko gizon on, abadea dogu
beti, apal, zintzo, Erri ta, EUSKERA alde,
ta, guk, emen, aren izena aintzaz omendu
txalotzen dogu, emen balego bezelaxe!!

Beraz, oroimen agurrezko txalo bero bat
deskatzue, ill-arte euskeraren gurtzalle,
benetako euskalari eta olerkide,
izandako Manterola-tar Gabirel'entzat!!

Muniategi-tar Sabin

Larrean, 1986

BIZITZAREN POZTASUNEAN

1

Bizitzaren poztasunean
eguzkiak dira bikoizten
bide bazter egaletako
basa loratxu soillenetan

Mundutza bat dizdirapean
apalki —aundia txikian—
ezkutapenez beteriko
erakunde ederrenean.

2

Zenbat jakintza gure izadian
jaiotza emoteko orri bah,
edozein ardura bakoren
aundi-maundizko arinkeriz,
ostikopean, itsukiro,
zakarki zapaltzeko gero,
lurrean basatuak, narrez,
iñortxo ez garalarik oartzen
aren izate arrigarriz,
eta egitura ederrez!

Muniategi-tar Sabin

ZORION-POZA DAGERREN OLERKI BAT

Inguru illun baltzean
zorion-poza dagerren
olerki bat idaztea,
ezta erreza, nabarmen,
errian ta, gizartean,
ain agirikoa danean
etsipen ta, naigabea.

Baiña. Zer egin? Zer egin,
eguzki argiz jantzi dan
egun zoragarri, urdin,
egun alai, eder bataz,
ni jabetzen naizenean
izadiarekiko pozaz?.

Dana dala, abestira,
argira, bizira nadin,
maite-bidezko senaren
itxaropen iturrira;
eguzkipean gora min
doyan egun eder onen
laztandurak jazotzera.

Baldin ba-yako atsegin
itzi, irakurleak berak,
bere gogo ta, zentzunaz,
biotzaz erabagi dedin,
poztuta alako «zerak»
damotson argitasunaz
edota, neketan, samin...

Ail! Nire alaitasuna
masaillako bat ete da
oñazearen gorputzean
ala, denpora barrien
itxaropena daroan
aizekirriño gardena
maitezko agur gozoan?

Izan bedi argi izpi,
ur tanta garden ta ona
bizitzaren lagungarri
bere alegin apurrez,
gogoz, aurrera doana,
asmo sendo, eginkorrez,
biotza zabalduz, kantari.

Muniategi-tar Sabin

ANTZA DANEZ

Antza danez
eguzkiak, gaur,
«toton» egin dau.
Ene Ama Lur!
Ez da etorri,
ez da ikusi
oraindik emen.

Baiña, zelan ez?
Gure katua
miau ta miau
orain-oraintxe,
sukaldean zan
estu ta larri,
gosari eske
ikaratua.

Euzkia nunbait
odei batean
katiatuko zan
ta, antxe bertan
egongo da, bai,
eguneroko
ibillaldia
betetzeko zai.

Aizeren batek
ez ete dautso
ba, lagunduko
andik urteten
bere betiko
eginbearra
egiztatzeko?

Muniategi-tar Sabin

POEMAK

BIZI-HARIAREN TXINPARTAK

ENE BIZI-OHALA

(«Zatozkida, Goi-arnas, eizu nerekin lan,
erri baten arnasa mamitu dezadan...»)

Urduritasun etsian
iruten neure kasa,
ur andur txitxil hertsian,
bertso-hari mataza.

Begiak erdi-geundurik
irutera noala...
gau itsutik aldendurik
nahi nuke berehala
hitz-arimaz ehundurik
utzi bizi-oihala.

Oroitzapenen hegitik
garraiaketa latzez;
eder-ondasundegitik
olerkimin-hegatsez,
altxor biltzen ikatz-begitik
nabil sorgin-erratez.

Ai, kutxa itxi txokoa,
nork ebatsi dik giltza
ene lehenaren gakoa?
Gordairu bitxi gisa
bihotz-barne ezkutukoa
haiz eta eskuragaitza...!

Hator, hator, Argi Sorgin,
beltzik den gauerdira!
Xamurki dinat hotsegin
ene lira-harira
ilunpe hau gerta dadin
eztai-festa dirdira.

Urduritasun etsian
iruten neure kasa,
ur andur txitxil hertsian,
bertso-hari mataza.

HERIO-MANDATARI

Arrotzak sartu dira
gorroto garrez
gerra zakarrez
mugarrion erdira
irriaren dirdira
galdu beharrez.

Aurrez aurre berbertan
suzko armaz berbetan
herio-mandatar
gorroto gorra arnagai
basalegea ikasgai
gerra-sua janari.

Herriaren dirdira
galduz beharrez
arrotzak sartu dira
mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez.

Mendien gailurretan
lueban-zintzurretan
gudarien anasa,
arimak urraturik
hartara behaturik,
burrinbaz metrail-jasa.

Mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez
arrotzak sartu dira
bakearen dirdira
galdu beharrez.

Han behealdeko trokan
amildurik borrokan
han dautza lur-lepoan
—bela beltzen orkesta
sarraskizale-festa—
fago zaharren orpoan.

Gerra zakirrez
haserre garrez
irriaren dirdira
galdu beharrez
arrotzak sartu dira
mugarrion erdira.

Basoko motozerra
zur-gosezto ankerra
krak hagin-karraxkadaz;
harkaitz artetan gorpu
dena hits basamortu,
aidearen dardaraz.

Arrotzak sartu dira
gorroto garrez gerra zakarrez
mugarrion erdira
irriaren dirdira
galdu beharrez.

Gaua, bihotzen gaua,
gudari nahiz soldaua
sentipenen lozorro
arima kainoi-puntan
arrikuaren sutan,
herra sorren mozorro.

Herriaren dirdira
galdu beharrez
arrotzak sartu dira
mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez.

Arrotzak sartu dira
gorroto garrez
gerra zakarrez
mugarrion erdira
irriaren dirdira
galdu beharrez.

Bonbaketa artean
dramazko gerratean
eszenara sortuak
ai, ene haurrideak!
Odolezko bideak
ikusten kokhortuak.

Bonbaketa artean
aitak entzun frentean
mandatari-hitz eztiz
bizi direla denak.
Agur, gerlako penak!
Eskerrak! «nunc dimittis»!!

Mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez
arrotzak sartu dira
bakearen dirdira
galdu beharrez.

Herriaren dirdira
galdu beharrez
arrotzak sartu dira
mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez.

Ezin egon, ba, posez
haur ttikitxoak gosez
aita frentean eta
ama dabil ameskor
nork emango ogi koxkor
aita falta da eta...!!

Januari otoitzean
iluntza bakoitzean
aita etxera dadin
osasan eta bakez
maitasunaren atez
gozatzera hainbat samin.

Gerra zakarrez
haserre garrez
irriaren dirdira
galdu beharrez
arrotzak sartu dira
mugarrion erdira.

Mugarrion erdira
gerra zakarrez
haserre garrez
arrotzak sartu dira
galdu beharrez.

Ene amaren kemen!
ttikitxoak hor-hemen.
Gonari atxikita
bi dabilza eskean,
bost gehiago etxean...
Ai, bihotzak itxita!

Arrats gorrixka ñabar
barnean otoitz-marmar,
orak pozez irrintzi
hitzez esan ezinik
bazen han ñirñir finik
aita zen, bada, iritsi.

ILINTI GAINETAN ORTOZIK

Nigar dagite zenbait mendik:
—«Gerra pasatu da hemendik».
Oraindik mehatxuka dirau
haren atze goibeleko gau...
Nabarmen hor utziz lorratzak
ariman odol-marka latzak;
eroritakoak gogoan
begoz Jainkoaren ondoan.

Eroritakoak gogoan
arnas irakina kolkotan,
zelatarien begi-kisten
salatarien mingain-etzen,
sarraskizaleen jai makur
zeharkakao hegazkada bihur.
Ilinti gainetan ortozik
gu betoskopean bilozik.

Euskadiko lur urratua
gerra amorratuz jorratua.
Hortxe hiltzear larrugarri
gure ezpal, gure jatorri!!
Hartz-atzaparrez markaturik
odol-istilez zakarturik
etorkizun bidekrutzean
zurtz, bakar, arima hutsean.

Zurtz, bakar, arima hutsean
laborria bihotz-zuntsean,
amets gaiztotik iratzariz
baina egia gordin larriz.
Ondamendiko ondorio:
dena herra, dena arerio
ezin ahaztu denbora-altzoan
edena baita aire-ahoa.

Geure sustraitik erauziak
ezaren kalera jaurtiak
hemen gaude noragabe itsu
betilun, eskuak zauritsu,
aurrean ondamen-drama hau:
haur-nigar, otsoen alarau,
ezinbertzeko kalegorri,
gartzela edo eta atzerri...

Iguzki-arnasa da izoztu
giza-barrunbeak mingostu;
Haizek suge-firfira dagi
hits datza mihiseta ilargi.
Ai, zerua etsi-etsita
trixteki begiak hertsita!
Kantatzen herri-doluminak
datoz itsas-bertsozko uhinak

Sastrakan minberaz asuna,
kresal arteko behazuna.
Aurpegi luze betzulo hits
dena lorrin, bazterrak likits
gerrosteko astelehen larri
zirimolaren oroigarri.
Denbora, hutsa dariola
doa, zerbait marmar diola.

Bizia hor herio-mugan;
berbiztuko ote da gugan?
Lehenago bideak ziren eten
errauts artetik ezin erten
ondamen-hesian katigu
geure ahultasunaren testigu.
Zenbat oztopo zenbat zoztor!
Denek xehatu zuhaitz jauskor...

Ariman gatazka-kedarrak,
oroimen-barnean ondarrak.
Ezin ahantzi arin-aringa
esperientzi latza haginka.
Gerrateko umeon zoria:
txit sendagaitza den zauria;
gure belaunaldi errea!
ezin loratu irribarrea...

Gu erosketa ta ezezkor,
halabaina herria ameskor
ezinaren errautsetatik
begitazio beltzetatik.
Ken iraganeko oroitza,
begiak altxa, xut bihotza,
bizitza berriro hasten da
tunel beltz itsutik irtenda.

Urrats tinkoak eman behar
ondamendi-etxetik zehar
hilerrri irekian ibilki
zorabio gabe bipilki.
Gaua da. Izarrek intziri,
ametez jeikiko goiztiri
haseran nagi, aharrausi
menturaren plazara jausi.

Ai, gure dramazko ihauteri
arranoa hegoan eri;
menderakaitz da arroka-erpin
ortze-sapaiko urdindura fin.
Etorkizuna, amets gori
izar bat handik da erori.
Xut burua, lurreen oinak,
jar aro berriko zutoinak!

Gauak ondoren egunsenti,
lurrak erdimina du senti.
Gaur arantzak hezur-muinetan,
bihar lorak ernamuinetan.
Atzokoan gerra trixtea,
gaur biziaren berbiztea.
Sasian zozoak habia,
dantzan ari da izadia.

IZADI LIBREAREN TAUPADAK

Oihaneko fago-sustrai altzoan
orbel kixkurren maindirapean lo
haizearen xurmurrizko bertsoan
ontto-sehaska bat heze, pottolo.

Txapelpetik nontzebarri kukuka
goizeko ihintzaren bataio-ttantzoz,
xuri borobil irriusuz keinuka
ixil, taxu inoaxoren zantzoz.

Ernalduraren berezko mirari
Basajaun baten zirrizko kilima
lur emearen barneko emari,
bildots-gorotzez onduriko klima.

Txutxumutxuka aho-xuri galai
laminarekin maitemenez eri,
goi aldeko erromeritik alai
dator ura, han gorde hor ageri.

Harat-honat bidaietan jolasti,
firifiri! jotzen heure txilibitu;
hi haugu, Haize, askatasun-azti,
hego zabal, aideko ezpiritu.

Zuri-beltzezko abiada hautsian
tximista Enaratxo, gertatu haiz
trebe, ferra-gaineko jarauntsian,
udaberria berbiztu den garaiz.

Txirritxoriak han zero urdinean
askatasunaren plaza irekian
jazz musikaren ritmo sorginean,
patioko haurren jolas jeikian.

Eztei-gogoz jeiki da egunsenti,
han zipres beltzean goizak ikara;
heriopean bizia ozenki
dator udaberriko bisitara.

Maiatz osoa nigarti, hasarre
bilduriko ozpin guztiak ixurtzen;
hodei beltzak kostaldean batzarre.
hasiko al dira bakez bihurtzen?

Haizearen ibilera libreak,
itsas-uhinen betiko brastada,
misteriozko izadi-bideak,
ilargiaren sorgin-begirada.

Izadia hortxe dago aldakor
ortzadarraren tintaz ñabartua;
batzutan nare, bestetan oldarkor,
altxor gordea eta zabartua...!
Askatasunaren ondasundegi,
olde naturalaren ikuspegi.

HAURTZAROA OROITUZ

Untxitegi bat bezala
zen ene gordabia,
orpoz-orpo alderreskan
hornitu zen kabia:
aurrena koxkortu-ala
toki eske berria!
Bazen han bizi-irakina
nigarra eta irria.

Oroitzapenak pilpilka
hegan noa haurtzarora,
aingeru pottoloentzat
den txokotxo narora,
ipuinak eta ametsak
erein ziren sorora.
Gau-egunez zamaturik
aldia igaro da.
Ilargia dantzan dabil
neurtzen gure denbora.

Haurtxo mordo muxugorri
han inguru-minguru...
ene amaren kemena
mantentzen hainbat buru!
Begi gardenez hari so
otorduen aiduru...
Nola utzi entzun gabe
aingeruen erregu?

Udaberriari deika
loratu da sahasa,
irriño xuriz jantzi du
bildotsaren adatsa.
Ene etxeko txoko hartan
ama dugu ardatza:
atergabe harat-honat,
maitezko olde maratza.

Atergabe harat-honat
erletxoekina,
irakinez barbaroan
gordetzen etekina.
Gezi zaztakorra zaiio
ttikien intzirina...
haitzetik sortuko luke
amak, jateko aina.

Goi-urduinduratik barrez
argien erregina,
urrezko bihotz beroak
lurraren maitemina.
Etxe xahartxo txokorantz dut
neure biziko grina,
han bizi baita, atsotxo,
guztion argi fina,
Jainko onak bidalirik
zerutiko arima!!

Ixil-mixilka ihintza
zelairatzen den garaiz,
egunsentiaren irri
txorien doinu alaiz.
Ezpain ertzetik otoitzak
zihizkatzen ditu maiz,
ama baita euskaldunon
etxe barneko apaiz.

Gogoan dut, mutil koxkor,
urte haien bolara:
etxezulo eta izu,
ez nenbilen gogara...
Letra-saltsatan galdurik
erdararen okada,
a-e-i-o-u ikasten
hasirik eskolara.

Tiberiades ertzean
Maisu berria ageri,
xamurki hotsegin die
hiruzpalau gazteri.
Gure eskola xarpail hartan
dei bat beren-beregi...
irribarrezko hots hari
nion lotsakor segi.

Errekaxto gardenetik
amorraina erauzi...
Giro arrotzean nintzen
dardar, hezikaitz jausi,
latinarekin borrokan
hamaika auzi-mauzi.
Neuretik hustu ninduten:
erdara zen nagusi.

Iragan bolara horri,
hats mikatza darizu,
hain apainduri ituna
nork jantzi ote dizu?
Orban-gerizaz dakusat
orduko pasadizu;
sermolari suhar haien
garraxi eta izu,
infernuko kixkaldurak
aipatzen jo eta su...!!

Gain-estalki beltza duen
urreaken dirdira!
Ilunbe itogarritik
irten bazko-argira.
Eliz-komeri guztiak
sinesgarri ez dira...
Amets goxoz jeiki nintzen
esperantza berrira.

JEIKI JEIKI

Ekin ekin, herritarrak
ixilpeko lanari
ixilpeko lanari.
Inurriak harat-honat
langile-aintzindari...
Meatzeko galeritik
ekin ritmo finari!
ekin ritmo finari!

«Ni naiz kapitain pillotu»
etsaiak hil, atxilotu!
heure zigorraren mende
ezarririk hainbat jende...
Ai, gixon zital maltzurra
azti galgarri makurra,
Pardo aurreko kukuxu
deabruaren lehengusu!!

Behazunaren mikatza
horra esperientzi latza!
negu gorriko elurte
diktadurapeko urte...
Ekaitzaren zurrumbilo
gartzela edo morroilo
ahoak hertsirik mutu,
herria baitzen izutu!

Tximista goitik zintzilik
herria dago ixilik,
haren ahoko mihi gori
zirt-zart baitzaio erori...
Oi askatasun, non hago?
Beste mundura haiz irago,
gu hemen katez utzirik
hezurrak ere hautsirik!

Erpinean harrapari
haitz-gazteluko ehiztari
altzairuzko begirailuz
noiz eroriko jausgailuz...
Oi askatasun, non hago?
Beste mundura haiz irago,
gu harrapari-erpatan
utziz, haizeen enbatan!!

Ene herriaren zotina
tristuraren intzirina
jotzen dihardu haizeak.
Hiletako mihiseak
dira ene bihotz-muinak
odolez buztitako uhinak.
Errekaxtoen murmurra
esperantzaren agurra...?

Oi amairik ez duen gau!
txingarrak hauspean dirau,
haren bero-izpiritua
bere baitara bildua;
errauspean lokartua,
baina bertan suhartua
indar bilduen su berriz
askapenaren egarriz.

Negua, aro emankor
geroko promes berankor;
amaren sabel iluna
lehen sehaskatxo biguna.
Katakunbetako aro
ilunbetako abaro.
Lurra txuri-berde-gorritz
loratuko da udaberriz.

Odol beroz gerratean,
izarren begirapean
gero, erein zen hazia
lurrak gorde arazia.
Ixilpetik erneko da,
txit lerden azpitik gora
lur-ikara ixil gordean
erditze-zirkin berdean.

Azpieragin bortitza
hortzak estuturik bitsa
erakusten du amorruz
itsas oldartuak orruz.
Gazteriaren arnasa
barne-irakinaren jasa...
lfar-Hegoan da entzun
iarki berrien oihartzun.

Apaiz gazteen mitina
odolaren irakina...
profetagitza garraxiz
eroriari urgaziz.
Oinaztarri zorrotzetik
sorturiko hitz garratzetik
egiak aldarrikatzen
eta askapena irrikatzen.

Jeiki jeiki, herritarrak
gurea da geroa
gurea da geroa;
esperantza goi-zelairantz
hega-hegaka doa,
ekaitz ondoko egunak
irriñoiz du ahoa
irriñoiz du ahoa.

AMETS XIMELDUAK

Jausi da Olinpo goiko jainkoa.
Han erorien haran hautatuan,
gainestalkizat harlosa trinkoa,
ehortzi dute betiko ostatuan.

Ehortzi dute betiko ostatuan
haundi-maundi artean ohi den gisa
haitzurdinaren barrunba izoztuan...
Haren izpirituaren geriza
hegan dabil kuarteleko izkutuan
saguzaharraren islaka itunean,
mamu beltzaren erritmo ilunean.

Goiko plaza irekian ibilki
laztan eztiz hatorkit, lurrin garbi!
ezpain egarrituetara ixilki
aidean poz-ijotika dantzari.
Oi askatasun, hegaka bipilki,
bihotz barnetan egonik katigu;
hire falta zer den bazekiagu!!

Lurrinak muxuan blastada goxo.
Baitua hengoan ontzitik ihesi,
askatasun-mezuz alai, airoso
gaindituz itxitura eta hesi,
tipo egin dut hirekin inozo
ustegabeko taxu sorginean,
amets xarmanten egoitz urdinean.

Aro berriaren bultzada qartsuz
itxitura-atean erne zeudenak
plazaratu dira urrats oldartsuz.
Presa-leherketa baten hastapenak
goitik beherako urjauzi apartsuz
esperantzaren plaza irakinera
datoz, hitz ezberdinen mitinera.

Erritmo askatuko letra saltsa!
Gorderik zeudenak azaldu dira:
«Egusentia duk, burua altxa!
ikus aro berriaren dirdira!»
Hasi da alderdien plazako dantza...
Udaberria apaindu zaigu lorez,
horma-ondoak ortzadar kolorez.

Izen berriak nonahi dira ageri
elkarren lehian, herriko azokan;
horma-ondoak letretan igeri
brix-brix egiten irudien sokan.
Hitzen eta paperen ihauteri!
Haizeak ekarri, haizeak eraman...
hitz eta pitz haizearekin hegan.

Haizeen jostailu paper-kondarrak
haurren ostikopean zanpatuak,
kale zokondoetako zakarrak
zurrunbiloka sakabanatuak...
Ur gainean loraturiko aparrak,
horrelaxe dira gure ametsak:
hitzen magiaz urre bihurtuak
ta edur gisa eskuan urtuak!!

Lehengo gazteri fina kalez-kale,
jaberik gabeko txakur galduak!
ubidetatik irtendako uholde,
mundu ustelaren izar itzalduek:
lan gabe etsi-etsirik, drogazale...
Oi gizarteak sorturiko aihotz,
atsegin-jariodun ezten zorrotz.

Zakur gosetien erdian larri,
krisialdia hor hurbil haginka
langabeziaren saminezko kinka!
Horra pobreen tragedia berri
bor-bor darien nigar-iturria,
herria herdoiltzen duen izarria.

Odol-iturri, hor dago krisia
agoturik lehenak emandako uztak,
egunak itzal, tristuraz bizia,
tailerrak, lehenaren hondakin-puskak...
Giza-ohorearen minbizia.
Haurren irria tristeki izoztua,
aita-amen begirada mingostua.

Itzali zen Olinpo goiko hitza;
biharamonean bihotz-zuntzetan
garden pausatu zen amets-ihintza...
Baina hona —dardara gorputzetan—
haren izpirituaren geriza
kuarteletatik hegada ilunean,
saguzaharraren islada itunean!

Orban ilun: OTSAILAK HOGETAIRU!
lur askatuan azaldu den leize:
harrapari prestuezen jostailu.
Han-hemen abertzaleen ehize;
hitz goxorik ez. Herio-altzairu!
Bai, amets gardenak dira erori,
Euskadi zutik dago gori-gori...

Jausi da Olinpo goiko jainkoa.
Han erorien haran hautatuan,
gainestalkitzat harlosa trinkoa,
ehortzi dute betiko ostatuan.

NAFARROA KONDAIRAREN URRATS GALDUA

Asaben lorratz bila noa
gaur ez denaren dei minbera
bihotzean; tristurak joa,
zauriz bustitako galdera
larriz: «Non zaude, Nafarroa?»

Arbasoen izpiritua
Baskoin Erreinuan gordea
gaur herioak ukitua!
la galdurik du kordea
arrotz-afrontuek ahitua.

Zure bide zidorretatik
maiz iragan naiz sustrai hila;
eremu latz elkorretatik
aditu nuen hil-eskila
itun galsoro alorretatik.

Baina ez, ezin dut sinetsi,
leinu horren fruitu baikara
sorburua ezin gaitzetsi.
Magal hezeen bizi-ikara
zirraratsu nuen miretsi.

Oi Nafarroa, ñabarduraz
betea, lur zabal desberdin
lautadaz eta ximurduraz,
eremu elkor, malda gordin
Erdi Aroko harmaduraz.

Zure haunditasun itsaso
ekaitz arrotzen lur ireki,
Euskal Herriaren arbaso,
zuga genituen ereiki
amets-gazteluak airoso.

Zikoinak kanpandorreetan
lirain pausatzen diren garaiz
ni ere urteroko oportetan
zure barnean mugiltzen naiz
mendian nahiz lur malkorretan.

Berezi nahi diguten zati
Nafarroa, lur maitatua
lfar-Hegoen adabaki;
gure zutointzat hautatua
afrontupean den izaki.

Herriaren bihotz urratu
kondairaren urrats galdua,
bideko erromes erratu
euskal hildotik itzaldua,
baina guretzat lur sakratu.

Hamaikatxo galdera larri
bor-bor darabiltzat kolkoan
nahasian josirik elkarri
nahi eta ezinaren jokoa,
geroa baitzait kezkgarri.

Menditik ibaiak bezala
kezkaz dakusta nola doan
herria, uharket hartu-ala,
gainbehera betiko hildoan
laztanduz meseta Zabala...

Nora zoaz, Arrano Beltza
zeure gordabitik ihesi...?
Odol gorritz duzu hegatsa
ta nahi nizuke itzul erazi
utzirik bidaia traketsa.

Itsaso bat aurrean gariz
haizeak leunki orraztua
jolasean fir-fir kantariz,
plano kuadraturaz marraztua
iguzkia bertan igariz.

Lur lauen itsasotik gora
horma gerrariz babestua
den gaztelu-herri trinkora.
Uxue, haitz-bihotzekua,
zuga lo ikusi dut denbora.

Nafarroaren babes gogor
garai zaharretarako zubi,
iraganaren testigu gor
Erdi Aroaren zurubi,
iraupenaren murru gotor.

Erreinu zaharren irudi:
gaztelu eta monastegi;
sor, mendean lotan dirudi,
gauza bitxien ikuspegi.
Gaur zurekin naukazu urduri.

Bizitza eta heriotza
orpoz-orpo beti ondoan;
horra hor osagai bikoitza
eten gabe lehia zoroan...
bai norgehiagoka mingotsa!!

la-ia lurrak irentsirik
han dago herrixka trixtea
heno-ahoa utzirik.
Pena da hartara irixtea
denboraren sare hertsirik.

Beltz ditu leiho-zulo hitsak
herioaren arnasa hartzen,
historiaren zutoin-giltzak
lur-ziloan betiko sartzen
trabesturik habe murrizak.

Han dago hondakin moltzoan
jausien trantze berezian
trauxkil lur amaren altzoan
oroitzapenen eresian.
Bi sai bertan dolu faltsoan
hegotzarrei eraginez,
hileta ordez jai eginez.

Nafarroko lurra zehar
Baskoin herriaren arnasa
ahul aurkitu dut suntsitzear;
arima galdu duen traza,
itzali heinean den izar.

Asaben lorratz bila noa
gaur ez denaren dei minbera
bihotzean; tristurak joa,
zauriz gustitako galdera
larriz: «Non zaude. Nafarroa?»

XIU-XIU XIXTUKA

Xiu-xiu xixtuka
 trena arnas-extuka,
 mamu beltza bailitzan
 pizti txar baten gisan
 ikusi zuten trena
 infernutik irtena,
 izugarria zela
 suge baldar bezela...!

Arbasoen tren hura
 mitoetan galdu da.
 Badator irrixuriz
 goi-tximixtak ixuriz,
 baina erritmo finez
 bere urruti minez
 aurrera triki-traka
 sabela txirixtaka.

Bidaztien egoitza
 etxe luze bortitza
 bizkar-hezur mugikor
 munduz-mundu ibilkor
 paisaiaren ikerle
 menturaren maitale
 herriak biltzen elkar
 burnibesotan zehar.

Zenbat dakizun, trena!
 agurraren auhena...
 baita itzultze poza
 zugan ohi dugu goza
 aro ona nahiz ekaitz
 zu zeurean izukaitz;
 zugan poza xurgatzen
 nahiz malkoak txukatzen

Triki-traka, triki-tra...
 ibiltari ausarta;
 lehen garaiari xixi-fu!
 orain hariz katibu.
 Zeure erritmo berdintsuz
 metal-ahots burdintsuz
 pozik honuntz hurbilduz
 jende guztiak bilduz.

Xiu-xiu xixtuka
 trena arnas-extuka

A. Beloki

UROLA IBAIA

(Errekaren atzoko ta gaurko zoria kantu-gai)

ATZO

I

ATZOA, GOMUTAN;
GAURRA BEGIETAN.
ZORI BI KANTU-GAI,
EZPAIN ITXIETAN.

ATZOA JOSTARI,
AMETS ZORAGARRI;
EGUN KIRESTURIK,
—KIRETS IGUINGARRI—
...JAUNAK GORDE BEZA,
GEROAREN BERRI...

Mendi epai biren urkuilluan,
Altzola deritzan inguruan;

Noiztik ua, noiztik;
—Altzola erotiko zizku agorgaitza—
Noiztandik bizkar-eraginka
betean,

Aizkorri mendikatearen orpoan darraio,
iturbegi otzak pol-pol jario;
noiztidaniko kondaira
ezkutuaren buruan.

aldakuntzarik gabeko
jokaera perkatxean;

Amatzako arkaitz tinkoaren
errai gordean okaraz,

naiz egunargitan,
naiz illunaren zorroan;
erekisako jolasean..?

aur-zorroa urratuaz batean,
indar-biurka ezpain tarte batean
argi-uatsera irtenaz,

Noiztik errekaxo dantzaria,
mendi-aska ezkutuan beera
jeiskera txaldanean parraxta,
basakate sakanean kiribilka;
alboetako iturri-adarrak
sorrerako erroaren babesean;
kako-makoka ibarrak zear,
Kantauri'ko ur gaztuekin
naastu arteraiñoko
bide-biur luzean..?

jaiopera pozkirioz,
txaltari ta mormorioz;
ixuriaren korapilloak
etenaz.

Nere belaun-muga laburra izaki,
ezkutuko ire sorreraz
jabetzeko.

Ur garden geldigorra,
aparraren mintzean
punpuillak lertu,
aur-jolaskera artu;
ta biur-biurka doa
lur-epaiak janaz;

Era berean aul ere,
joaniko gizaldiek utzia
orrazteko.

eta arin-arin,
egal banatara txipli-txaplaka
gainbeera labaiñean,
goroldioz jantziriko
ar-mokorre igurtzi giilikorra
emanaz.

Ire etenik gabeko emaria,
ta ixilkako joera lilluragarria;
ikuspegi ximple onekin
uztartzeko...

Egunak... Urteak...
 Millaka belaunaldi;
 —ta ainbat gertakizun berri—
 irentsi zetik izaeraren
 zinzur nasaia.

Alaere, ik eure-eurean jokaera,
 Egileak agindu arabera
 zamatuaz daramazkik
 joanaren txinta guztiak.

Egunez-egun,
 luebai medarrari ertz biak janaz
 kiribilkaren eragiñaz.
 Eguzki galdari igeska,
 kerizpez-kerizpe biurka;
 aurre-maillari jarraika
 ur-egal nagiak.

Gau oskarbian ostera,
 izar jostarien erraiñua,
 uraxala kizkurreraziaz
 auen keiñu bitxiak.

Perkatx baiña apal,
 mirabetza etsian baikor
 betekizun neurriak:

Lur-azalak ezatzen,
 gizadi egarbera asetzen...
 gora-beerakorik ez dik oindiño
 ixuriaren joera biziak.

Ezaguera diat begiz ikusita...
 Izoki pintardun amurrai luzexka;
 ur-maillaren kontra agailaz elduta.
 Aingira labaiña, ta barbu izuka,
 ur-geldi nagian ezkaillu moltsoka;
 txangurru baldarra, nolabait gordeka...

Ezaguera diat begiz ikusita...
 Ainbat andrezkoren lexiba astinketa
 gona mendeltsua gerrira lotuta,
 belaunetaraiño uretan sartuta;
 ur-jaren garbia beretzat artuta,
 oazal txuriak arrian zartaka...

«Ura nagia dek.»
 Milla bider aitaturiko
 esaera utsa.

Begi goseak ba'du ikustekorik,
 burutik orpora begiraturik
 Urola errekarri;
 ora emezortzi errotarri,
 elkarren leiaz erasoan
 uraren bultzaz jira-biraka,

tankalaren leloan dantzari,
 goseberen janari;
 alea eio, ta askara bota...

Ezaguera diat begiz ikusita...
 Alez leporaiño auzoko errota.
 Ur-jarenak jiraz karrama-ardatza,
 onen esaneko arritza galanta;
 astiro eioaz dijoan aletza,
 eguneko ogi, zuri edo beltza.

Burdin-ola illunkoan,
 ola-matxin zaintsuak

burutik orpora izerdiz blai;
 ta ikatz-autsez beztuak.

Beso-azalak erre-berdosturik,
 ta uraren bultzaz baliaturik;
 salda gori, meatz urtuak.

Bero gabian mazpilka artu;
 nola luzatu,
 ala zabaldu,
 biur eman da kakotu...
 Besa-zaiñen neurriara,
 egunoroko lanorduak.

Ikatzak sua,
 auspoak aize,
 meatzak galda,
 g a b i a k d a n g a ;
 matxiñak neke.
 Uraren bultzak
 indar dezake...

III

Bulartatea zeartatzean,
atzean galdurik ola-matxiñen
ezparrua;

aurrerantza doa,
bare, baiña ezikaitz,
bi zatitan banatuaz
Legazpi, ta Iparragirre'ren
sorleku eremua.

Osin zapalgaitza
erdiz-erdi luzatuaz;
zati biren mugatzako diraun
ur-putzua.

Ikuskizun luzagarri,
berezko jarraipen etsian,
aldiho nagi,
tarteka jostari;
joeraren neurripean
borroka antzua.

Gaztetasun sentieran,
jolaskera berrietan;
ertzetik-ertzera,
biurkako ziburua.

Uarri-mokorreirei kako egjin-da,
ondo-sakanetik amilka;
ar-koskor urdiñak aztertuaz,
eta aueri ertzak borobilduaz;
sugea gisa,
indar-biurka aurrera;
azpian lurra,
gaindik Zerua...

Eten gabeko kulunkaz,
epai-tarte medarrak
ala bearturik.

ixurkera apalaren mazpilgarri,
zurrunbillora loturik.

parrastaka ertz banatara,
basaintxaur eta astigarren zaiñetara;
zipriztiñen ezkura dariola,
aaliik-eta, ibargunea artu bitarte
oneratu eziñik.

Parrasta bi gora-beera,
abian, Loiola-ibarrean bultzaz
ur-maila ibiltaria,
lautadaren paparrarte
irekian.

ixilleko ar-emanaz
lurrakiko mirabetza
etsian;

mirabetza etsian-da,
ezkon-aurre amesgarrian

Izarraitz'ko itur-zaiñen
ixuriaz aurrena,
Emio'ren egapeko uraz urrena;
maite-miñez aiko-maikoan,
eztai-urren bitxian;

ezkillen dilindalangoen
oiartzun sentimenez
lo-bete eztiñan...

Jira-bira bitxian
urak laztanduaz,
gilikatzen bailiran
elkar ukuitzeaz;
apar txuriz gaiñera
punpuillak lertuaz.
Eztaiurren jazkera
abian artuaz,
elkarren eskuz-esku,
indar-berrituaz,
gainbeera labaiñean
kriskitiñak joaz;
atsedenik arteke
itxasora doaz..

IV

Egjera biurrian
itxas-begirantza,
indar berrien bultzadaz
koska-moskak gora-beera

Auzo-errekatoak
egapera artuaz-artuaz;
oillo-amak txitoak
oi bezela...

Zume-ar tartaka orritsuak,
eta saratsondo biurkoak;
batean-bestean
estaltzen dutela.

Lur-arrokan estu-estuka,
nasaigunean asperenka;
txirristokia nolako,
onen arabera.

Neurrian neurriko,
tokian tokirako,
aldakor urak jazkera;
ta aldakor,
murmurio kantu otsa.

Argi-urraeran berdaxka,
kerizpe ezkoan belunka;
ta, illargi betean
zillar-bitsa.

Jazkera arabera,
soiñuaren gozoa
orrazketan doa;
milla bitxiren arrobi txotil
ur-zain aberatsa.

Aukera nun,
an ur-mailla loditu,
abian, egalak meatu;
ta indarraren eramanaz

ertz zorrotzak janaz,
zazpi neurritara borobilduriko
arritza.

antzar-arraultz pilloak irudi,
batean-bestean
ertz banatan utzi-ta;

panpox doa ixuri gardena
itxas-adarrera;
garbitasunaren
ixpillu bailitza.

Naiz-eta joan,
pirrin-pirrinka bidean
zipriztiñak galtzen;

batean-bestean,
errekatoak bilduaz;
jakin du azken-mugaraiño
bera danezkoa zaintzen.

Itxas-mailla lodiari
aurre ematen,

zurrunbilloak austean,
adiskidetza apalean,
putzu-urdin zabalean;
bein-betirako
jolaskera artzen...

Altzola'n jaiio eta,
ur-zain emankorra,
maldar-beera txaltari
erreka txistorra.
Erriz-erri bustiaz
Urola-ibarra,
mendez-mende orrela,
ixuri baikorra;
jokaera xurrean
kantauri kolkora...

GAUR

ITURRI TXIKER
AMESGARRIA;
ITURRI APAL
BEZAIN GARBIA.
ATZO BOR-BORKA
EMEN INTZAN-DA;
NORA GORDE DEK
ITUR-BEGIA?
BEGIEI ZIRKIL
LURRAZ AZPIRA...?

Alabearrez...
Belaunaldi berriak
jostailu arturik,
asmakizunak burutuaz.

Azalez-azal biurka
zeterren itur-zaiña
lurperatuaz.

Oizko jolaskera ausarta,
odi-arroka illunera bota;
ta ixuri emankor gardenari,
berezko egitura txaltaria
kenduaz.

Egitura, ta jolaskizun osoa
ta ao-sapai gozoa.
Ao-gozoa txakaldu,
estu-estuka mazpildu;
ta aldi berean,
iturri agorgaitzak,
eres-murmur ukigarria
landuaz;

betidanik zekarren
zoramenezko txipli-txapla ere,
ondore begiari
ukatuaz.

Ainbat ontzi-ur
etxeraturiko uraga,
surtan erre du
belaunaldi berriak.

Errautsez garbian eutsiriko
urontzi dizdirakorrak
onenean janak dauzka erdoiak

—Lotsaz asarraturik noski—
urak berak eramanak
auzoetako lexibarriak.

Nekeak aitu zaio gizadiari,
ta bide batez samurrera erori;
oitura berriei luzatuaz
begi-biak.

Ostera,
zerbait galdurik ba'degu,
ta galdua aaztuko zaigu;
aaztu, bai aaztu;
erreka apal onek
luzaroan eskeiñi dizkigun
lilluramen guztiak...

lñoiz jaso det
begiz iasoa det
begiz ikusita,
ixuri-negarra,
ta zenbait putzuxka;
euria atertzean
erdi-agortuta.
Upakin berdexkak
gaindik estalita,
zain ezerik gabe
landako baratza;
eta larre-beia
egarriz lur-jota.

lñoiz jaso det
begiz ikusita...
Uramil zakarra
asarrez lertuta.
Arri ta enporrak
aurrean artuta,
soro-lurraz janaz,
bideak erreka;
zeraman indarraz
zubiak autsi-ta;
baretu eziñik
joera galduta...

II

Burdiñolen eremuan
 ola-matxiñak,
 —gaurko burgiñak—
 orain ere lanean borrokan,
 txingurrien irudi.

Ibai-inguru medarrak,
 bat-bestearen gaiñean pillo-pillo,
 bizi-leku txikerrak;
 bertatik-bertarako
 sartu-irten mugikorraz,
 txingurri-toki
 dirudi.

Ba dute uraren antsirik,
 uraren premirik;
 soin-aztalak garbitzeko,
 ta ase aal izateko
 so-legor egarri.

Etekiña kenduaz gero,
 ur galduak berriro gainbeera;
 erreka erdi-agortura doaz.

Arropen lika koipakorrak,
 ta arraskan bilduriko kondarrak,
 bakoitzen eginkaiaz
 naasian artuaz;

begien iguingarri,
 kirats-usai okarakorra
 zabalduaz.

Sormena mozturiko
 erreka antzua,
 beingoan agortu zaik
 urik geientsua;
 ta darodan apurra,
 arras kirastua.
 Orra, zaborratoki
 sasiak artua;
 arratoi itxusien
 eguraslekua...

III

Ba'doa,
ba'doa beerantza,
ur-naaste usaindua
lurraska biurreen korapilka;
su-mendiak jaurtiriko
ondakin antzera.

Atzoko punpuil dizdirata,
gaur azaleko lakarrak estalita;
arri-mailla bakoitzeko
bits-moltso beluna,
arrotzen-arrotzen
kedarra opilla aizeak
bezela.

Osterongo apar likakor,
estalki parpail luzeak ere,
ba'darama sabeleerri galduen
tankera.

Alaere ba'doa,
motel-motel lur-epaian arrastaka,
derrigorrezko joerak
ertz banatako landare-aien
egarberak;
bere irudiko
senidetza zabalera,
lotzen dituela.

Bai-ta, mugira berdintsuan,
elkarren leian zein geiagoan,
izen bereko trentxo txikia;
zikin da narrats bera bezela;

lur-zuloan sartu-irten,
zubiz-zubi ziburuan dirudilla,
ezker-eskubi kiribilkari,
bide-lagun daramala.

Salto bi, ta zurrunbillo,
joanaren kurpillean
ur-bildu zikiñak.

Eta ezkura ospinduak,
—pozoiaren kutsuak—
buru-magalak orixkaturik
igartzera daramatza,
zugaitz errenkada luzearen
zaiñak.

Kutsuaren gaiztoz gaixoti,
Loiola-ibarreko baratzak;
eta kutsutan naastuko,
Izarraitz, eta Ermio'ko
iturri aberatsak;
Urola ibaiaren betidaniko
ezkontide miñak...

IV

Aldiak zear amurraitoki
 izaniko osintzarrak,
 kañaberaren erraiñurikan
 ez dik berrituriko urak.
 Agian norbait ausar ba'ledi,
 garranga-kako okerrak
 geienik ere jaso lezazkek,
 arrain galduen ezurrak;
 edo-ta bertan pillaturiko
 zugaitzen orbel igarrak.

Ar-mokor labaiñak igurtzitzean
 ez daro murmur ezirik,
 ez oizko punpuil bizirik;
 alabearreko amilkeraren
 kurpillak.

More-beltz jazkera ospelaz,
 egal meaxkak ertzak janaz;
 il-dantza mugira dirudi
 joera ixillak.

Dolu dagio,
 —esker gaiztoko dolu-miña—
 jasoaren ordaiña
 orri igar kizkurtuei
 gaiñera jareaz
 zumar-ondo illak...

Nun utzi dituk,
 erreka lotsaz belundua,
 nun, oizko tokiratzeke
 arri-bitxi borobillak..?

Atzo ar-koskorrak
 pillatzen itukan itxas-mokoan,
 gaur ostera, toki artan bertan;
 plastikuzko botillak.

Ba'dirudi,
 bere zoroan lotsaz dijoala
 esku ematera
 itxas-lodiari.

Eta tankerak damaion
 etsipen zurrean,
 zirkil dagio, zirkil
 itxas-gorari,

egal banatara ixurian,
 aurre mokoia biurrean;
 bizkar irtena tarraska,
 ur-parpail bitsetan gorde-gordeka
 zelai urdiñari...

Garbitasun ixpillu,
 betidanik izana;
 orra, gaur-gaurkoz
 belaunaldiaren
 lotsagarri...

ALDI BANATAN
 BI OROITAMEN;
 BI IKUSPEGI.
 ATZO JOSTARI,
 AMETS ZORAGARRI;
 EGUN KIRESTURIK,
 —KIRETS IGUINGARRI—
 ...JAUNAK GORDE BEZA,
 GEROAREN BERRI...

M. Ugarte

BERTSOLARIAK

EUSKARAREN EGOERA

Euskara aurkitzen da
 etxean arrotza,
 bere gain erorita
 epai Zorrotza,
 dugun berdintasuna
 dugu hanka motza,
 erderak dena libre,
 gureak morrontza,
 hau trago mingotsa,
 neke eta lotsa,
 gaur egun laiotza,
 laister heriotza,
 BAINA EUSKALDUNA DA
 GURE BIHOTZA. (bis)

Hemen bertan sortu zen
 Euskal esaldia,
 baina larri darama
 gaurko aldia,
 etxe barrura sartuz
 Troiako zaldia,
 burrukatzen ari da
 gure gizaldia,
 guk joko garbia,
 haiek pikardia,
 akabo sendia,
 hau hondamendia...!
 ETSIAK EGIN DIGU
 KALTE HANDIA. (bis)

Zazpi adarrak soildu
 gainez baztertua,
 gure Euskara dago
 ia lehertua...
 Bere jaiotetxean
 dago maiztertua,
 eta lehian aritzen
 arrut azpertia,
 gaur zer eskertua,
 jasa atertua,
 zerbait suspertia,
 eta edertua,
 EZ DA INOIZ IZANGO
 DESAGERTUA! (bis)

Hala ere eskean
 ibiltzea sarri,
 niretzat behintzat ez da
 oso pozgarri,
 agintariak daude
 agian elbarri,
 eta laguntza onik
 ez dute ekarri,
 hainbeste lokarri,
 dizkigute jarri,
 gu beti egarri,
 estu eta larri,
 EUSKARA BULTZA NAHIRIK
 BURU BELARRI (bis).

Sisiforen harria
igo nahi mendira,
eta askotan eman
diogu bira,
nahiz eta gorantz jaso
oso urrutira,
indarrak akituta
berri behera jira,
gure sokatira,
ezin erretira,
une latzak dira,
baina gogor tira,
EUSKARA HEDATZEKO
EUSKAL HERRIRA! (bis)

Euskaraz mintzatzea
batzuntzat bajeza,
hutsa izango balitz
hain aldrebesa...
Nola bete daiteke
Euskaldun ametsa?
Oraindik Euskarak du
etorkizun beltza:
Batzuek nahi eza,
besteek laineza,
hainbeste promesa,
ta gutxi babesa...
EUSKARAZABALTZEA
EZ DA ERREZA (bis).

Oleri egunean
hau da euskal jaia,
Manterola goratuz
bete da mahaia,
laguntza ematea
da denen epaia,
eta horra elkartu
jendetza alaia,
heldu da garaia,
egiteko jaia,
ager zure nahia,
lotsatuz etsaia,
TA EUSKALDUN IZATEN
JARRAI BIZKAIA! (bis)

Gesalaga

ITSASOA

Zer ote du itsasoak,
guk zuzentzeko pausoak,
bera begira konpontzen ditut
sarri arazoak,
luzeak ditu besoak,
ezin kendu bere soak,
zeren ondoan jaiok gara
beraren presoak.

Jo badu eguzki printzak,
ditu islada anitzak,
baina aldatu ezkeror hori
jartzen dira hitsak,
ekaitz baga eta bitsak,
horrek ez ditu murrizak,
eta bagetan eraman ditu
askoren bizitzak.

Itsas bare atsegina,
zeru urdinez egina,
andera baten parekoa da
maitale bagina,
ludi honen erregina,
errespetu denen dina,
bere barnetik bizitza sortu
duen emagina.

Gure andere galaia,
iz beti da alaia,
jendetza bertan bildu ezkeror
egiten du jaiak,
hondartza, haitz, eta kaia,
Ugarte edo talaia,
beti presta dago laket dakion
edonori nahia.

Gesalaga

BERANDU ETXERATZEAN

Berandu etxera ta
gainera mozkorra,
zakurrak ekin dio
amorra-amorra,
ez da erreza lortzen
etxeko lehorra,
hortzak estutu eta
ate zaina horra!
Ondo ordainduko dut
edanaren zorra... (bis)

Gaur ere baietz hemen
niretzat kastigu,
galbidean ez gara,
ibili noski gu,
baina erretolika
latzak datozkigu,
andrearen sermoiak
ongi dakizkigu,
esanak esan arren
inportik ez digu. (bis)

Hala ere eraso
berriro zakurrak,
etxera sartu nahi ta
hor nago beldurrak,
—Lasaitu eta entzun
nire hitz samurrak,
isil zaitezten tori
txuleta hezurak.
andreari esango
dizkiot gezurrak. (bis)

Zapatak erantzita
eskaieran gora,
argiak amatauta
ez dakigu nora,
trastetan estrapozu
eginda gerora,
andreak ni bota nau
etxetik kanpora,
eta lotara noa
txakurran ondora. (bis)

Gesalaga

MUXIKA'KO PROBAK

Txotxo-Jeuri'n bertsoak
Muxikan pasatu da,
au da komedie!
teille posture gin da
juan Bizkargire.
Andikan bueltatu ta
Taberna-barrire
probia armatu da
jira eta bire

Amabi ta erdietan,
a zan terzioa!
gizonak eukiteko
ona juzioa.
Agustin alkatie
Lupariakoa,
kontrarioa barriz
Markez Jaurikoa.

Posture armatute,
bai ere jokatu,
irabazi ebanak
ezin leiken galdu.
Arro dabilenari
zer yakon gertatu
galdu eta berandu
gero akordatu.

Lumo aldetik yaku
kontrakua agertu,
Joakin Agerrekoak
posture sarratu.
Baiña aren esanaitik
ez gendun pentsatu
Astelarre-n eingo zan
probarik jokatu.

Esandako berbie
an eban kunplitu
bai eta sasoirako
idiek plantatu.
Lenen Muxikarrari
yaken suertatu,
bigarrenak arraiek
ezitun sarratu.

Lumo baiño gorago
dago Erregoiti
kontrarioa, barriz,
parte orretati.
Axio ta Txordoa
orroaka beti:
«ez dirala ikeratzen
klase zuriaiti». (1)

Kaitano Erregoiti-tik
Pedro Mixikatik
lizentzia ekarteko
Gobernu aurretik.
Ezeben ezer lograu
alegiñakaitik,
bakia oba zala
Jaungoikoagaitik. (2)

Bake, ba, egitie
genduan pentsatu,
Gernika-ko frontoian
bai ere juntuat.
Baiña idi jabiak
ziraden gogortu,
«preferaz» (3) eh bear zala
proba ori jokatu.

Elgoibar-era parte
genduan bialdu,
ango alkate jaunak
euskun kontestatu:
paratuko bidian
egiteko segitu,
berak eingo ebala
plazia libratu.

Urrengo Sapatua
zan señaladue
Elgoibarren ikusteko
idi indartsue.
Lau jua ziran eta
bat egon notaue:
Muxika-ko idi txiki
gorri apaltxue.

Atsaldarako ziran
zuri beillegiek
ederto asitakoan
egiten arraiek.
Baiña azkenerako
illundu begiek,
geiau izan zirala
aurreko txikiek.

Axio eskumatatik
Txordoa bestetik,
larri ibilli zituen
ogeta amabi.
Geiago ezin eben
alegiñagaiti,
baiña ondo kunplituek
ogeta amaika ta erdi.

Erregoitiar majuek
nun dozuez begiek
sekula ez ezautzeko
olango idiek.
Ondo edukiaitik
okelaz josiek,
geiago izan zirala
Aurreko txikiek.

Errigoitiar majuek
ezaize ikeratu
galdutako diruek
bozuez pagatu.
Bi jua ezketiño
batek bear galdu,
galdu ta beranduan
oi da akordatu.

Orra amabost bertso
ditugun jarriten
ejenplugarritzako
atariak aurten.
Borondate onagaz
dituguz egiten,
gura daunak erosi
Txakur aundi baten.

Juan Antonio Enbeitia

EGIA ETA ZUZENTASUNA. AU DA GURE JAUNGOIKUA.

Biotza goibel amesak haundi
 Itxaropena geroko
 Geroa, zer da? gero zer dago?
 Duda asko bitarteko.
 Egi irudiz lorazko itzak
 Guzurraren babeseko
 Herri xearen gose egarria
 Honek ezdauzku aseko
 Egintza bidez ikuzten dana
 Hori dogu siniztuko.

Guztion aita jainkua dala
 Eleisak dauzku aitortzen.
 Euskal herriari sinismen ori
 Ezda ain erre-za kentzen
 Bakoitzak daukaz bere eretxiak
 Nerea noia agertzen,
 Famili baten batzuk aukeran
 Beste batzuek sufritzen
 Guztion aita da jauna
 Zergaitik gozuz banantzen?

Demograsien izenarekin
 Kontzenti bage zigorrez
 Herri bat emen sufritzen dago
 Menperatua indarrez.
 Eleiztar asko ixilik dagoz
 Egia esaten bildurrez.
 Ta bitartian gure herria
 Juztisi eske negarrez
 Hau ikusi ta Jainkoa dala
 Sinezten ez dago errez.

Persona bat naz ba dut sentzuna
 Ez naz sinezmen bakua
 Kontzentzia dut eta honekin
 Daukat zeregin naikua.
 Siniztuten dut badala nor bait
 Gu baino goiagokua
 Ez da gizonak eta diruak
 Indarrez sorturikua
 Egia eta zuzentasuna
 Hau da gure Jaungoikua.

Jaungoikua ta justisiagaz
 Indarrak ez du okerrik
 Eta jauntxuen menpetasuna
 ez da gaurkua bakarrik.
 Lenago ere artuak gera
 Emen naikua egurrik,
 Lur maite onek eleuke izango
 Zapaltzaillien bildurrik
 Geure artian ez balegoke
 Anai Euskaldun maltzurrik.

Belengo izarra agertu bazan
 Egia azalduteko,
 Herriak ditun eskubideak
 Gizonai erakusteko,
 Inoren gauzai bakean itxi
 Norberena zainduteko.
 Guk be badogu eskubidea
 Geuria eskatuteko,
 Geure lurrian estuntza gabe
 Aske bizi izateko.
 Enbeita tar Balendin

Enbeita'tar Balendin

EGIAREN LEKUAN, GEZURRA NAGUSI

Barruko kezkak itun narabil
eta ezin naz alaitu,
nere barrenak asetu nai dau
eta ezin da nasaitu,
guzurra argi ikusten nago
egia ezin argitu,
arrazoi bidez justizia nai
eta guzurrez zigortu.

Zelan oinpean egon leiteke
egiaren altasuna?
Eta gezurra beti garaile
nundago zuzentasuna?
Nun da egien alde hil zana
Jaungoiko Seme Gizona?
Inundik ez da erantzupenik
dana da ixiltasuna.

Nun dago bainà kontzientzia?
Baztarrean dabe utzi.
Gizatasunen balioa nun?
Osuan egin da jatzi.
Eta Kristoren irakatsiak?
Ez dauka hainbat garrantzi,
gezurra izan ezik besteak
diruak ditu iruntzi.

Egi gaxoa baztertua da
langile pobrientzako.
Eta gezurren urre zidarra
kapitalistarentzako
Bihotzik bako injustizia
lotsa bakoarentzako
kontzientzia, ogi gosean
dagon gixajoentzako.

Bakardadean zalantzan nabil
egiaz jaubetu nairik.
Baina inundik ez dot ikusten
egi aldeko biderik.
Injustizia eta gezurra
daukaguz goiak arturik.
Aita Goikua, zuk zer dinozu?
Egiak ez dau jauberik?

Zalantzan nabil eta ez daukat
inun ere leku onik,
gaur egunian egiak ez du
iñogaz hartu emonik.
Eleiz buruai itandu eta
ez dogu erantzupenik,
hau ikusita ezin esan lei
Jaungoikua dagoenik.

Euskal Herriai agintariek
berea dautze ukatu.
Eta Eleiza buru batzuek
ukatze hau ontzat artu.
Kaifaz ta Anaz izan baziran
Kristo ebenak salatu
Euskal Herriaz egin dabenaz
ezin legike harritu.

ENBEITA-tar Balentin

OLERKIA

Hau ez da olerkia,
 hau ez!
 Zer bada?
 Lo ezinik dabilen harkatza,
 Zerbait idaztean lasaitasuna
 sentitu nahi duen indarra,
 indar latza...
 Hemen BERA da ardatza...

Ez, hau ez da olerkia,
 olerkia arte bat da.
 Hemen, ordea, arteak,
 BERA baizen artea,
 ihes egin du...
 Hauek bihotzaren zartadak dira,
 artea galdu duen bihotzaren
 zartada korapilotsuak,
 askatu nahi duten korapilo
 lotuak, presoak...

Blasta... eta blasta gertatu zen...
 Egun gozoa,
 argi zegoen,
 hura giroa...
 Eta... blasta!
 Dena ilundu zitzaidan...
 Irriparrezko sua,
 humorearen ardatza,
 poza zen BERA...
 Eta... blasta!
 Dena goitik behera,
 matrail hezurreen, gogor,
 eman zidaten,
 horrenbeste ote nuen zor?
 Ilusio bizia zen,
 bizitzaren bizi nahia...
 Bazuen garaia!
 Baina... blasta!
 Bizitzari heriotza gaintu zitzaion,
 gauak irentsi zuen,
 berez argia zena,
 argi indarra...
 Gauak ez tali zuen dena.

Eta... blasta!
 Hustua, galdua,
 malko erreka
 bilakatu nintzen...
 Mundu madarikatua!
 Gorputz atalak,
 atal guztiak,
 min egin zidaten,
 bihotzak eztanda,
 irten, korrika hasi...
 Ihesi zijoan lagunaren hila...
 bazijoan ihesi...
 korrika egiteko gogoia
 sortu zitzaion.

«Aita...» esan zidaten...
 Lau begi, lau ispilu,
 ez zuten ulertzen tutik...
 Negar zotinka, lehertuak
 baina zutik...

«Aita lasaitu,
 Ama joan zaigu...
 baina ez du sufritu...»

Bi kimu gazte,
 ederrak, gordinak,
 bizi izateko bi arrasoi...
 maitasunak eginak...
 Baina txertatu,
 laztandu, maitatu
 eta bizi izan zituanak ihesi...

«Aita lasaitu...»
 Ez nuen sentitzen
 amorrua besterik,
 amorrua sortu zitzaidan,
 zerbait hausteko gogoia,
 derrigorrezko gogoia...
 Baina zerbait horrek ere
 ihes egin zidan

Lagunez inguratua,
 babestua, maitatua nintzen...
 eta ez nintzen ezer,
 inor sentitzen...
 Bakarrik,
 bizia edo hila,
 ametsetan ala itzarrik,
 nola nengoen?
 Ez nekien...
 Triste...?
 Ez! Ez zen tristura.
 Hiztegiek ez dute
 hura deszifratzeko hitzik.
 Nola nengoen ordea?
 Hutsik!
 Bizi? Zertarako...?
 Bizia zenak ihes egin badit...
 Zertarako...?
 Sostengua hautsi bazait...
 Zertarako...?
 Merezki ote du?
 Bizia! Bizia...!

Ba ote dago bizirik...?
 Bertsoak entzun nituen...
 HARK maite zituen bertsoak!
 Zeruan IZAR bat gehiago
 bazela esan zuten;
 Klabelin eder eta usaintsuarekin
 parekatu zuten...
 Denak maite zuten,
 maite gintuzten...
 Baina nik ezin nuen
 bertsoarik egin;
 malkoek ez zidaten
 IZAR berria ikusten utzi;
 klabelinari ez nion
 usairik hartu,
 ez nintzen geldi egon,
 eta ibiltzean nekatu..
 Zentzu gabeko automata
 bihurtu nintzen...
 Dena zijoan ihesi,
 eta ezin geldiarazi...

Txalaparta hotsa!
 Jendetza...
 «zurekin gaude...»
 «gogor eutsi...»
 «Aurrera...»
 «Semeengatik...»
 HARK horixe nahiko zuen...»
 Besarkada bakoitzarekin

lotuta zijoazen hitzak...
 Eta nik,
 entzuten banituen ere
 ez nekiala entzuten nituen.
 «Eskerrik asko...»
 Eztarri korapilotsuak ahal zuenean
 erantzuten...
 Hitzak...
 Hitz kontsolagarriak,
 neuk neure lagun bati esango nizkionak,
 eskertzekoak...
 Haizeak eten gabe
 errepikatzen zituen hitzak,
 lagunengandik nahiak zotinez esanak..
 eskertzekoak,
 eskertzen nituenak.

Baina egunak ilun jarraitzen zuten,
 eta dute...
 Maiz laburregi eta ezi
 bihurtzen ziran gauak
 laztu eta luzatu egin dira;
 burukoak busti,
 ezin berotu...
 HAREN tokia hutsik!
 Ez ninduen besarkatzen,
 laztantzen...
 Arnasa beroa, HAREN arnasa beroa
 geldi zegoen...
 Ez nuen entzuten hitzik...
 HAREN hitz gozotik...
 HURA falta...!
 Zertarako bizi..?
 Ba ote du zentzurik...?
 Eta berriro ere
 haizearen oihartzuna...
 «Aurrera...»
 «Semeengatik...»
 Eta abar... eta abar
 Buelta eman
 eta negar...

Lagunak inguruan...
 galdezka:
 «Zer moduz?»
 «Ansia, koinata, Ama, Etxean...?»
 «Nola semeak...?»
 Erantzun...?
 Nola erantzun?
 Neuk ere ez banekien...
 Onda... Gaizki...?
 Ez nekien nola zeuden,
 nola nengoen...

Ez naiz sentitzen,
 dena falta zait,
 hutsik nago...
 Ahaztu, beste zerbaitez
 pentsatu nahi nuke,
 baina ezin dut...
 Kozkordu, edan,
 irrintzika hasi nahi dut,
 baina alperrik,
 ezin dut..
 Toki guztietan dago...
 «Hori ez egin...»
 Goxo-goxo, irriparez,
 errepikatzen dit...
 Heldu nahi nioke,
 besarkatu indarrez...
 Baina haizea da,
 BERE gogoaren haizea,
 maitasunezko haizea...
 Deitzen diot,
 baina ez daukat erantzunik,
 eta ezin diot heldu...
 Zenbat maite dudan nik...!
 Dena den hortxe dago,
 sentitzen dut...
 Haizea da...
 Bizitza madarikatu hau!
 Eta ezinak inundatzen nau

Baina HAREN gogoak,
 HAREN arnasak,
 HAREN biziak
 neregan dirau.
 Ez diot agurrik egin,
 ez eta egingo ere,
 ez diot egin nahi...
 Ez da joan,
 neregan dirau.
 Nahiz eta ez ikusi,
 amorruek,
 ezinaren amorruek,
 barrenak hautsi,
 malkoak sarritan
 matrailetan saltori,
 alperrik da guzti hori,
 hortxe zaude
 Nahiz eta dena bihurtu hautsa,
 berriztatu ezina
 hortxe zaude,
 neregan zaude
 eta maite zaitut,
 benetan maite zaitut,
 inoiz baino gehiago maite zaitut!

Abel Enbeita

ITZULPENAK

JAINKOAREN IRUNTZA EDO MARIAREN ESNE GARBIA

(Azken egunetan, Lisieux-ko Terese deunaren olerkiak euskeratzen ekin dautsot: 54 bat dira guztiz, bederlatzi urte monja karmeldar eginda 24 urtekin il zanak biribilduak. Berezkoak emona eta ikasiak ekarria, gazte onek ba eban edersena eta bertsoak koplatzeko erreztasuna; pentsamentuz lau ta bizi, eta olerki legez bipil, miresgarriak ditugu aren sorpenak).

1. Ene Jesus Jauna, Amaren altzoan etzuna,
oso agertzen zaiataz maitasunez dirdaitsu.
Maitasuna, begira misterio esan-eziña,
zeru-egoitzatik lurreratzen zaituna...
Ai, laga niri be zapipe eskutatzen
izaki-begietatik ondo gardea,
eta zure ondoan, oi Goizeko Izar!,
or aurkitu det nik aintzin-zerua.
2. Goian esnatzean argi-dizdiz barri bat,
eguzkiaren len-erraiñuak ikustean,
zabaltzen asten loretxo samurra
usain gozoko lurruna biran edatuz.
Larrosadi guztia ondo guri, goiztar,
bizitasun gozoz gau orniduten dau guztia,
barneindar oparotsuak ekarria,
potin barriz lorea eder jarririk.
3. Zeurea dozu, Jesus, lore gurtiz edegia,
nik zakustaz zeure lenengo itxartzean.
Zeurea dozu, Jesus, larrosa lilluragarria,
potin ezoa, eskertsu eta txit gorrizka.
Zeurea Ama lastanaren beso ain aratzak
seaska leun dagitzuen errege aulkia.
Zure eguzki joria, Maria'ren erraia da,
eta zure larrosadia, aren birjiña esnea!.

4. Ama koronkutuna, nire jainkozko Anai txikia,
onen begietan dakust nik etorkizuna osorik;
laster nigaitik Zuk itxiko zeure Ama,
dagoneko maitasunak jasan-azten zaitu.
Baiña Gurutz-gaiñean, oi Lore edegia!,
nik dazagut zure usain-lurrun gaiztarra,
nik dazagut Maria'ren larrosadi joria,
bere Jainko-odola, Birjiñaren esnea da!.

5. Larrosari au Kutxa barnean da gordetzen,
zeruetako aingeruak zoraturik dakuse,
Jainkoari eskiñik berex euren erregu bizi-goikoak;
Juan doneak bezela diño: «Ona ementxe
Ba, ona emen, Itz au Osti egiñik,
betiereko Apaiz; Bildots apaiztua».
Jainkoaren Semea, Maria'ren seme egiña,
aingeruen ogia da Birjiñaren esnea.

6. Serafiña aintzaz jatzu janaritzen,
paradisuan da bete-betea aren zoriona,
Nik, aur makal, nik ez dakust ostian
kolorea baitio, esnearen irudia soilki.
baitia aurrari ondo datorkion esnea da
ots, Jaunaren maitasunbardinbakoa dozu,
O maitasun samur!, indar barrendu-eziña!
Ene Ostia zuri, zu zaitut Biriñaren esnea!...

Euskeraztu dau: Igotz'ek

ELIZEA
(Karol Wojtyła'rena)

Ormea

Orma bat.
Orma baten pusketa.
Zutoin lauek gora deznitxoetatik,
egarberak, santu sendoak
euren ibil-gura mundu zear baretzen,
egin bat opa dabe, Talud aundia,
liburuetatik urtena,
zabalik oneik, eta arrakaltzen gaitue.

Goi gaiñak ez dabe zapaltzen orma au,
ez ditu pisutzen urrun bizi diranen lepo gain biziak
euren biotz nekatuen gelatxoetan,
Ezta ez dau pisatzen orain biratzen dauan lurraren leza au,
eta olan izango da beti, amaren bularretik / gizona jaio ta ilten dalarik

Lezea

Lezeak lezeari dei

Zuk ikusten dozu aize-boladak
apurtzen diran usgune bat bezela,
urrutiko aitz gaiñean garauak lez
dirdir dagie zidarrezko kristal pikorrak

Lenengo aldiz eskatzen dautzut,
zuk beste Lexara bear dozu begitu,
zeure begietan ixiotzen danera.
Gizon bakotxak bere begien
barruan daroa, eta danen artean
lekutik bera kendu ta bidekatu daroe
itxas-untzi bat lez sorbeldetan.

Mugimendu izugarri onetan
ez dago ezer au desegin daikenik,
luma batez bezela zeure ikurra
zoazala idatziz eraitu bakotzez
zeure begi edegiakaz.

Zuk inguruz esitu arren,
ez uste izan zugarri ez dagoanik Lezea

Aren argi-dirdira zuk zeure begiz
Untzia itsatsiz doatzu,
saminkor, zeure lepoan.

Eta bera zeure aragian dozula
gizaseme bakotxaren Izateak lez
bultz daragiozu Lezeari.

Beltz bat

Zugarri nik begiratzen
dot, ene anai, azkenbako lurraldea,
berton irrekaztoek beingoan gelditzen dira,
bertan dago eguzkiak bere zer guztia, bere altxorra,
burdiñezkoa, gorputza balitz lez laba barruan.

Zugarri dardar dago nire adimenak
zure metalean.
Nire adimena era askotako ozkadurakaz,
balantzaka dabil
egiaz guzurretik aldentuz
Poz aundia bai balantza berak
irudiak negurtzea
neure begietan eta zeuretan dizdiz dagienak
bizitza bardiñaren izate bardiñaren
uneak legez alkartuak.

Zola

Gure oiñak emen zapaltzen dabe
jaioten diran lurra,
ormak eta zutpiñak.

Euren artean galtzen ez ba zara,
eta batasuna aurkitzeko bide ba dagizu,
eta esan-naia, Zolak zuzentzen
zaitulako da.

Zolak ez ditu bakarrik
etxe barri batzuk alkartzen,
baita gure artean dagozan usguneak be
geure auleri eta utsak jakiñik gabiltzazanak.

Zu zara Arria,
zu zara Zola beste batzuk be ibillia.

Aurrera doaz elburua jakiteke,
eldu nai dabe zuk daroazuzan lekura
usguneak alkarturik
pentsamentuak dardar-azoten dauazan begirunez

Pedro (Arria) zara,
artaldea doan arkaitzak lez oinkadak zaintzen dabezana

Arkaitz da Zola au,
jauretxe ikaragarri batena

Eta gurutzea da janari

Kripta

Jatsiz goaz, iges goaz
Zolatik, an geratzen
dira gure oinkadak.

Zulatzen dogu arkaitza
gizona aurkitzeko.

Ainbat ardiren apatzez
zauritua dago.

Ez ekien ardiak
nor zapaltzen eben.

Desagertzen dan gizona
ala iñoiz desagertzen ez dan Gizona

Kriptak esan leiskizu
mundu osoa lotu eta banatzen dauanak.

Gudari-talde eskerga batek lez,
nekatu arren, amor emoten ez dauanak

Eta, alan be, danak
jagiten dira, nekeak ez daroaz illobira,
ezta zaarrak be, oneik orobat, miñak narras,
euren joko-lekura doaz aringa.

Euren lañozko begiz,
gazteak lez ikusten dabe.

Beste mundu bat datorke
euren gorputz eta arimen bidez,
bizitzearen barna,
eriotzaz emoten doazanak,
pozikan emon be.

Txiro eta billois geratuko gara,
kristala legez, ditzikor,
isla ezeze ebagi be egiten dabenak

Eta ebagitako mundua
zigorka alkartuko dira kontzientziak,
eta jauretxe au euren sutondo biurtu eben

Ebanjelioa

Egiak ez dau ixuritzen eriorik zaurietan
errea alderatzeko,
ez zaiakoz leporatzen gero kale-zear doan asto bati
egiak jakin bear dau min egin eta ezkututzen.

Buruko gogoetan zoliagoak dira
gizasemeengan zerbait makur-azten danean;
danak dabiltz billa zeian artez jarri
aurrekaldea ez, baiña azpi sakona,
azpia baiño, untziari oñatuak tez gogor dagiona.

Egiak jaso oi dau gizona,
Gizona bera jagiten ez bada,
orduan etxe eregiak pisu bikotzez zapaltzen,
eta au danok sentidu oi dogu geure gauza lez
bide egiñaz aurkitu doguzan kalez gabiltzala,
Astoak garoazenez,
(kale orreitan egia
gitxituz ala geituz ete doa?)
aurrera daroaguz begiak trankil,
ziuak ez gaitu arrapatzen.

Iturriak eta eskuak

Aintxiña esandako itzak eutsita bizi gara,
eta eurretan ezer aldatu ez dadin
kantu aundiz bir-esaten daguz.

Ori bakarrik?

Ba-dira esku ikusi-eziñak
guri laguntzen dauskuenak untzian erramuka,
untzia eroanez istoriaren ido kulunkatsuz,
azpi-arritz beteriko istoria zakarrearan zear.

Naiko al da iturri baten sartzea
ikusten ez diran Eskuak billatu barik?

Uri biak (Azkena)

Uri bietatik bakotxa
biotzetik biotzera
aldatu leiken oso bat dozu.
Biotz bakotxetik bizi bear dabe,
lñor be ezin leike bizi, bat naiz bestean ezik,
eztabaidaz jokatu genduan ordu luzeetan,
eta irugarren uriko argiak dakusguz sartzaldean,
egunaren gantzuz eder-apaiñaren agertzen jakuna.

1962

IRITXIAK

OLERKARIAK ETA...

Bein, bertso-sale batek, olerkariakandik bertsolariakana ze alde dagoan itaundu eustan. Ara —esan neutsan— ikusten dozuan goikaldean dagoan lerdoia, piñudia.. Ba, bertsolariak, ezetariko eskutu ez sakontasun bagarik, ikusten dabenez, abestu daroe piñuen izakerea: Zugatz luze ta illunak direala, goibeldu egiten dabela aroa baiña dirua artzeko onak direala ta abar, ezetariko sakontasun ez, illuntasun barik. Olerkariak, ostera, piñuari adi dagozala piñudiak eta arein inguruan bere gogo ederberan sortzen dautsoen irudimen olerkoia azaldu daroez alik ondoen, egokien, apaiñen eta aapaldi biotz-eraginkorrez.

Beingoan aditu eustan adirazi neutsana eta pozik geratu izan zan a, bertsozalea, nire azalpenaz.

Olerkari eta bertsolarien bitartean ba-dira, baiña, beste batzuk bere: Oleskariak. Beste batzuk ba-dira, ostera, ez olerkari, ez oleskari, ez bertsolari-izenik merezi ez dabena: Bertso-gilleak.

Olerkariak, izaki eta izadiaren edertasun eta eragiñak gogoa zirkinduriz irudimenean sortu oi dakioezan egokitasunak itzik gozatsu, dotore eta esakera apaiñenakaz, neurtitez, azaltzen alegintzen direnak doguz. Urriak izan daroaz olangoak, bazterretan.

Oleskariak, itzetik ortzera bertsoak abestuz, baita idatziz be, erriari kistartasunaren ondanasunak eta mamia, abertzaletasuna zein beste zoezer, kantuz, azaltzen eta zabaltzen alegintzen daroaz.

Bertsolariak, bururatu-ala era guztietako bertsoak abesten dituez, entzuleen pozgarri

Bertsogilleak, ostera, kantau barik idatzi egin daroez neurtitzak eta, geienetan, olermenaren ikutu txikienik be bagarik idatzi be.

Izakien ederra berezitasunez ikusi eta nabaitzeko doaiatz agertzen yakuz mundura, olerkariak eta, gero, ikusiez eta ikasiez, barruan daben olermenaren eragiñez, euren asmu eta nabaipean alik ondoen, egokien eta apaiñen agertzen alegintzen dira aspaldi biribil eta txukunez olerki egoki eta biotz-eragingarriak atundurik.

Orain ba-dira, aspaldietan biribildu bagako olerkiak bere: Ba-da, neugurri bagako bertsoak. Ba'daiteke, olerki batzuk, adierazi gureen bat edo beste idatzeko, olerki askatuz azaltzeko egokiagoak izatea; baiña negurriaz, igiereaz eta taiuz apaindurik agertzen direan olerkiak beste ikus-begi eta atsegiñik izan daroe bertso askeen aldean, olerki-zaleentzat. Ganera, bertso askeak bere zelanbaiteko neurria ta igjerea bear dabez, egokiak izan daitezana. Ez edozelan eta orbelez (alperreko itzez) beterik idatzi. Olerki izateko, itzik erdiak, beintzat, alperreko izan daroez eta olermenik bere ez dauke or zear dabitan olerkitzako bertso luze, astun eta askaturik geianak; olan idaztekotan oba itz leunez idatzi ba'legie.

Ez diñot, bertso askeetan be olerkirik idatzi ezin daitekeanik. Itz askatzuko lanak eurak bere izan oi dira olerkoiak, batzuk beintzat, baiña olermen gitxi aurkitzen dautset, nik neuk, baintzat, olerkitzat agertzen direan neurri bako bertso luzeari.

Oleskarien artean Enbeita'tar Kepa, Muxika-ko Urretxindorra izan genduan goi-maillakoa. Aren laiñeko oleskaririk etxaku agertu izan oindiño, Euskalerrian, eta beste lekuetan be ezetz esango neuke aren neurritik gorakorik, Ak, bere neurtitz irakaskorrez abestuz, kistartasuna sendatu eta abertzaletasuna zabaldu ebazan, gure errietan, agertzen asita ebizan xede eta gogai arrotzeri arpegi-emonez: JEL-tzale zintzoa genduan izan bere, gero, a, Areatza'ko oleskari a. Enbeita, oleskaria ezeze, olerkaria bere ba-genduan eta olerkari ona izan bere. Aren aldean kaxkarrak daukez olerkari ontzat gure aldameneko errietan eta baita geurean bere, politika arrotzez kutsuturiko alderdi batzuk.

Bertsogilleak mutillak, doguz izan, aapaldi biribillak eta apaiñak idazten baiña arein neurtitzak ez dabe izaten biribiltasuna ta apaintasuna baiño besterik: Olangoan be, geienak euskerea ondo menperatzen dabenezkero, itz askatuz idatzi ba'legie, oba; euskeraz ondo jakinñarren ez dira, ba, ez olerkari, ez oleskari, ez bertsolari be-ta. Oneitariko batzuk, olerkaritzat etsi daro ez euren buruak, baiña olangoakandik benetako olerkariakana amil igaroeziña dago.

Gizaseme ta emakume bakotxari, zeozetarako berezitasuna emon izan dautso Jainkoak eta bere izakereari etxoakozan egin-bearretan ez daroa izan iñor be trebea.

Bakotxak bere gaitasun, zaletasun eta izakereari jarraitzea da, ba, egokiena: Olerkari direanak olerkiak onduz irakurleen gogoak gozatu. Oleskariak, erriari oles-egiñez, aapaldi irakasgarriak abestuz gogoak zuzperten, zintzoagotzen ekin eta bertsolariak euren bertso egokiakaz entzuleen entzumenak poztu... Eta bertsogilleak itz askatuz idatzti begiez euren burutapenak.

Olerkariak, oleskariak naiz bertsolariak, guztiak egin darcatse mesede aundia izkuntzeari. Bai-ta olerkigilleak eurak bere...

Bere joan-etorri ta edertasunak neurtitez idazten eta abesten diarduen giza-semeak dauzan-arte, iraungo dau, ba, euskerak, gure izakereak eta Euskalerrak.

Aurre-Apraiz,

IBIÑAGABEITIA'TAR ANDIMA'REN KARTA BATZUK

Elantxobe'n jaioa eta Karakas'en illa dogu Andima Ibiñagabeitia. Gaztetan jesulagun izana, euskeraz sakonki ekiana. Ak idatzitako lanak interesgarri-interesgarriak jakuz, batez be liburu barriai ezarritako eritxi emateak; onetan ez da gure artean ain zintzo, artez eta leial jokatutau dauanik, beti norkeri ta intzentzu botatze ganorabako barik.

Nik izan neban aregaz artu-emon naikoa barrukoa, Bergili olerkariaren itzulpenarekin bereziki. Nik egin neban Enearena, baiña ak Paris'tik Karakas'era itxasoz joalarik, itzuli eban «Unai-Kantak» idatzia, gero Zaitegi'k «Euzko-Gogoa»-n argitara emona. «Alor-kantak» liburuua paila zan, eta nik lana aurreratzearren itzulpen ari eskatu neutson, eta pozik egin eustan arek. Latindar poeta aundiaren lan osoa euskeraz argitaratua ikusiz, kartaz iragarri eustanez bene-benetako poza artu eban.

Ori zala-ta, ainbat eskutitz egin eustazan; zentzun aundiko gizasemea zanez, eta euskeraglazki maite, aren lanak beti ditugu jakingarria.

Aita Onaindia

Caracas'tik Loreillak 23-1962

Onaindia'tar Jagoba Abari
Lare'a'ko Karmel'era
ZORNOTZA

Adiskide ona:

Gaurtxe eskuetaratu iat zure idazki mamitsu eta pozkóra. Ez neban uste alako bari-on atsegiñez kuin-kuin etoriko iatanik, ezta urik emon be. Eztakizu ondo zelan poztu nazen bidean iari dautsuezan tupustari guztiak gainditu dituzulako, eskérak zeure kemen eta adoreari. Bai betoz ordu onean zure aldizkari bikain biak euskera indartu eta bidebatez sinismena sendotuteko. Oía gure aberi doakabearen zimendu tinkoak, biak gaur egunean ain kili-kola atzeriko aize nazkagariak dirala-ta. Ez baka'rik atzeriko aizeak, b'aruko aizeak be, euskotaren betiko ergelkeria dala-ta, ez dira osasuntsuagoak gure aberi giroarentzat. Dana dala guk beintzet, egin daiguzan geure alegiñak aipatu zimenduoi gogor baño gogoiago eusteko.

Eztzoe lan makala burutu Aita Lino'k eta zeuk. Agiri da zuen euskalzaletasuna eztala illinti motela gar bizia baizik. Eneban usteko Enbeitaren ainbat olerki bildu eikezanik. Irureun, ezta pillo makala. Egia esan, bertsolari gitxi izango dira gure artean ainbeste neurtitz ondu dituenik, eta ain ondo. Nire ustez, Enbeitaren bertsu eta olerki guztiak liburu eder batean argitaratu bear lirake, danak batean aren etori agortu eziñaren aberastasuna erakutsi dagien. Ondo

dakit garezitxua izango dana alako liburu mardula argitaratzea, baiña nik, neure aldetik neu-riak eta bost alegin egingo dodaz biar dan dirua sortuteko. Oindiño ez naz asi eskabide óre-tan, zure baiñen zain nengoelako. Baiña bertatik asiko naz naizta ziur egon, itz garatzik asko entzun biarko dodazala. Emengo abertzale ao-andiek, aoa zabaltzeko prest egoten dira beti be, ez ainbestean zizku-aoak zabaltzeko. Baiña zabalkunde aundi bat egin bear dot, bizkaitaíen artean batez be, ortarako dirua inguratuteko. Eta zer edo zer lortuko dogu. Bitarte-an, zuek bildu egizuez eta garbitan ezaíri olerkiok. Esan biarik ez, zure itzaúrea liburu óren apaingáiririk bikañena izango dala. Ia ba, Aita Onaindia, goraldu dagigun geure Úfetxindóra ainbat olerki eta bertso eder esan zituen úfetxindóra. Abériak eskerik onenak agertuko daus-kuz egunen batean.

Báiro be bakardade soillenean gelditu naz emen Caracas'en. Aúre báru aldera ioan iaku bizitzari arpegi-emon biárak bultzatuta. Luzaroan egon da lan barik, eta lan bári bat eskeiñi dautse, eta erdi-menturan Guaianako zelai zabal eta úfunetara ioan iaku. Zergara? Itanduko dozu biar bada zeure kautan. Zetari, eta úre billa. Naiago nuke Keresus'en úreak baiño geia-go arkituko balitukez luñalde bakár areitara ioan diran euskaldunok. Bai, merezi dau adur obe-agorik gure Auré onak. Eztauka beste amesik, txanpon batzuk egin eta báiro Euzkadiratzeko baiño. Neuri itzi daustaz bere olerkiak eta idazkiña gordeteko, Olerkiak txukun bildu eta idatzi-ta daukaz al dabenean argitaratuteko. Lengo idazkian be esan neutsun, baiño gaurkoan be báiro esan bear dautsut: Noiz emengo ete dauskuz laun Onak bi milloi (gaur geitxuago) gure idazle maiteak eta euskera dagozan leze illunetik atarateko?

Biar doiaz nire illobak Bilbaora eta etzi or izango dira. Esan dautset zuri agertu bat egite-ko, baiña eztaikit ba, beti ibiltan baitira astiz úri. Nire Bergilirena, erdi amaituta daukat. Beste lan andi bat darabilt eskuartean: «Erbestaldiko Euskal-elertia». Berogetaz erbestaldiko idazle-en izenak batu dodaz eta gure elerti-arloan ez txatxaíenak. Olabidekin asi naz eta onen sailla amaitu dut eta emen argitaratuko dan aldizkari berezi batean agertuko. da. Ondoren Orixe, Zaitegi, Larakoetxea, Etxebéria, eta ainbeste eta ainbeste. Goxoak iariko dira nik dakidazan batzuk, nire Olabiderena irakurtzen dabenean, batezbe Egan'eko kritikalaria eta Historia de la literatura Vasca'ren egillea. Eurak beizen eskubide iatórak ditugu guk ere, nai duguna idatzi eta esateko. Ezteritxozu?

Bi baiño geitxuago luzetu naz. Laster iaritxiko al dozu zeure euskarako baimena be. Ortik iatorkuzan opor-aizeak pozgáriak dira. Zabalduko ete aurten ofáko bideak? Ai alan balitz.

Ekumunak Aita Linori eta zuk artuixuz erbestetu onen euskal-agufik beroenak.

Izan ditut Zaitegi'ren báriak, Platon'ena eztot oindiño ikusi eta erpai be banago irakurte-ko. Kritika bat eskatu daust, baiña eztaikit nun argitara al izango dodan, gure Euzko-gogoa il-da gero.

Betorkigu Jel'en efeinua. Amen

Caracas'tik 1966'gko Urtañillak 17

Onaindia'tár lagoba Aba
Larea'n

Adiskide maitea,

Garaia zan onezkero; emen doiatzu aspaldi agindu neutsun itzaurétxoa. Atsegin izango al iatzu, baña nire ustez eztauka funts aundirik. Alperkeriak ianda ibili naiz alako ganora bako itzauré ori egiteko. Zeuk ikusi, ondo ezpaderitxozu apurtu eta kitu. Ainbarik argitaldu liburua.

Urte baña ezta ain ondo asi euskalzalioentzat. Naigabez iakin neban egun batzuk dirala Suizan il dala Salbatore Mitxelena prantzizkotar aita maitea. Alkárekin izan giñan Belok'en eta Paris'en be beste zeregin barik neu ikustera etóri bai zan éri artara. Ordu edérak emon genduzan alkárekin bai Belok'en baita Paris'en. Eztakit zelanik iazo dan adiskide maite óren eriotza. Iakin gura neuke, ia zeuk edo bialduten daustazuzan zertzelada batzuk. Dana dala, ni neu ondo naibagetuta nago alako olerkari ona eta idazle bikaiña euskerak galdu dabelako, eta ganera oindiño gazterik il dalako. G.B.

Ni beti lez liburu bafiak ikusi guraz nago eta arítuta be bai zeure lolas'ena oindiño eldu ez iatalako. Ezta u oindiño irarkolatik urten ala? Bialdu egiztazu arin arin neure egári au bardintze-ko. Idatzi eztot askorik idazten, baña irakuñi euskerazko zer guztiak, eskuetara iatortzan aldizkari eta liburu guztiak, ziatz irakuñi be. Aurten asmo sendo bat artuta daukat, orain arte bañó geitxuago idazteko... Baña nun argitaratuteko? Aldizkaririk be eztaukagu, EGAN bera be urte bete ta geiago da agertuten ezta. Zetako idatzi beraz... Ora euskal idazle askoren buruaustea, nun agerturik eza eta libururik egin ezkeru baiiz, gabetasun eta txirotasunez lakaripean itzi bear usteltzen. Eloñjo auxe ezin ete lei garbitu? Zelan edo alan euskal-idazleai laguntasuna emoteko biderik ezin ete leike arkitu. Nik uste, bazkun bat biar litzakela sortu euskal idazleen liburua, euskerazkoak iakiña, argitaratuteko. Bestela, ni lez, beste asko be anitzu lotuko gara ezer bere idatzi barik.

Argitaratu al dozu udazkeneko Oleriti? Ori be eztot ikusi oindiño... Eta barkatu, baña berandutxu izan afen, artuixuz neure zorionik beroenak asi bañi dogun urte zar onetarako. Emen geratuten naz zure bañien aiduru. Aspalditxu da Enbeita Imanolekin gertatua idatzi neutsula; eztaustez oindiño bere aitaren olerkiak biurtu, eta ikusten naberen bakoitzean ez-ikusiarrena egiten dau. Eztauka antza, bere aita zanaren liburua argitaratuta ikusteko gogo aundirik. Badago bakoitza gure artean... Beriak eta bost entzun biarko daustaz...

Eta anartean artuixuz neure besarkadarik sendoenak

Onaindia'tar lagoba Abari
Lárea'n

Adiskide maitea,

Ioan dan larunbatean Enbeitaren zenbait argazki ekári eustazan neure loba Lore'k zuk emonda. Eztakit zer egin biar dodan argazkiokaz. Dana dala, argazkirik edeřena palta da zuk bialdu daustazuzanen artean, zure GURE BERTSOLARIAK'en azalean agertzen dana ain zuzen. Belu bada be, olerkiak bialdu genduzan egazkiñez ziurtaztuta, baezpadan be. Oingo an izango dira Buenos Aires'en Ekiñekoen eskuartean. Esan ba úrengoan, zer egin biar dogun emen daukoguzan argazkiokaz.

Asko poztu nintzan nire loba Lore zu ikusten ioan zalako, eta nik ezebe esan barik gane-
ra, bere aita zanaren obiraltzera ioan baizen, eta eneban uste bateri eta bestera ibilteko go-
go aundirik izango ebanik-eta. Baña Andra argi eta eragiña izan, leku guztietara eldu zan.
Arek emongo eutsuzan kontixu, nire barí urtenenak. Egunotan guztiz ibili naz atsekabeturik
neure koñetuaren eriotzea dala-ta. Benetan maite genduen alkar beti bizi izan bai giñan seni-
tarterik edeřenean. launaren baitan izango al da. Abertzale zintzo eta euskaltzale ona izan
zan.

Eztot zure liburu bařia oindiño iaso, baña nik uste atetan izango dala. Ain bizi gara
alkaręngandik úfun... Aurten alan be Laburdiratzeko asmoa daukat. Guztiok goiaz Euskadira,
eta Lore'k ni be aruntza ioatea gura dau, Donibanera baño espada be. Dana dala, orko agin-
tariei baimena eskatuko dautset emengo kontsularen bitartez, nire auzia zetan dan iakiteko.
Erantzun onik eztot izango, baña zetan nagon orko agintariekiko iakingo dot beñipein.

Bete beterik sartu gara aste gurenean, eta eguazten guregez itziko dautsegu guk lanari
arik eta pazko-astelenerarte. Bitartean egun aundiak ospatuko doguz aberri-eguna tartean
dala. Zer baři izango ete doguz aurten? Or agertuko dira.

Eta gure liburua? Zetan da? Orain, garizumako zeregin astunetatik arinduta, zedozer
egin al izango dozu.

Lengo baten Batiz'en gutun labur bat iaso neban emengo lufaldeai betiko agúre egiñaz.
Eldu ete da zuen artera? Biar bada or izango da. Gorantzi miñenak neure partez or arkituten
baldin bada eta naibage aundia artu nebala emendik igaro etzalako.

Amaitutera noia zeresan aundirik be eztaukat eta.

Pazko-aldi zorionsua egingo al dozu. Artuixu adiskide onen besarkadarik sendoena.

Onaindia'tár lagoba Abari

Lañean

Adiskide maitea,

Ementxe zure gutun atsegiña eta txori goiztarfen txinta zoliak baño goizago natorkizu eskeñak emotera: eskerik asko ba, adiskide zintzoa. Diru-kontua illebeta au amaitu aúretik garbituko dautsut. Eztira oindiño azkanengoz bialdu daustazuzanak eldu, baña óreik be elduko dira. Emen, ale batzuk beñipein, saldu al izango ditut neure zenbait adiskideen artean beintzat. Iragaiñ neutsun, eta iragaiñ bezela, gure liburuaren jaia ederto egin genduen gurean, txanpan da guzti. Ogeitabost adiskide euskaldun eta euskaltzale batu giñan eta anaitasunik edeñenean emon genduzan zenbait ordu eder. Arítuta nago oindiño EMAN iaso eztozulako; egalontziz bialdu neutsun baita Aita Akesolori be. Laster eltzen ezpaiatzu esan, bañiro bialtzeko. Ointxe gabiz irugarfen zenbakia antolatzen: nik idazteko daukodaz neure idazlanak zenbaki ortarako, eta biar dan egunean (larunbata) etxian lotuko naz egun osoan idazlanok egiteko. Kultur-sailean neonek egingo dut kritikatzu bat gure BERGILI'tzaz. Aúrek idatzi eustan Iruñako bañi emonaz. A be an izan zan eta gauza ikusgaría izan ei zan benetan ango gizataldea. Pozgária benetan berpizte ori, eta are pozgaríagoa euskerarenakin batera baldin badator. Lengo baten Z-Argian «Noiz izango degu Euskal-Biblia» artikuluan Olabideren itzulpenaren aurka Kintanak idatziak irakurita, asere bizitan irakiten iari nintzan. Eztakit nor dan, bai idazle ona dana Kintana ori, baña snobkeriz eta atxe-merkeen eragiñez ari dalakoan nago.

Ara; alako gauzak irakurtzen ditudanean senetik kanpora urteten dot!

Eta besterik? Deus, Lanean asteko garaia eldu iatala. Besarkada aundi bat.

Onaindia'tár lagoba Aba
Lañean,

Adiskide maitea,

Luzaro eztala idazki bat egin nizun eta gaur natorkizu bárriro be zenbait léroño egitera, emen arkituko duzun ILLETA EGUNEKO MEZA zuri bialtzeko. Aita Txomin'ek (Aretxabaletako apaiz gazteak) egin du nere ezkon-anaia zanaren il-mezatarako. Atzo ain zuzen abestu genduen lenengoz meza orétan zenbait euskaldunek, eta an ziran guztiei atsegin izan iaken. Itzak Orixeren librutik artuta dagoz.

Zuri be atsegin izango al iatzu, eta beste barik ementxe bukatuten dot idazki au.

Zertan zan gure Batiz? Eldu ete zan? Baiezkoan, neure gorantziak.

Onaindia'tár lagoba Abari
Laréa'n

Adiskide maitea,

Badira egun batzuk gure liburuaren bost ale iosi bakoak artu nituela eta atzo iaso neban apainki azalezutakoa egalontziz etórita. Milesker zure zintzotasun eta ardura aundiaren alde-rako. Kontuak sasoiz eta zeuk gura dukezunean egingo ditugu. Atsegin izan iat benetan aza-lez ain apainki iosi eragin dozun alea be; baña uts txik.itxu bat arkitu dautsat: azal apañaren barfuan, nire uste labufean, azal-bigunaren irudia eroan bear. ebala deritxot alan ba osoago eta apañago geratuko zan da. Quiles iaunari eztakit zelan aztu iakon ziaztasun ori, osorik eta ondo azalestatu liburu guztiak azal bigunaren ostoa gorde daroie ba batez be irudiz edo izki apañez iantzita baldin badator, gure liburuan lez. Dana dala aderto-dagola deritxot, eta guz-tiz izan iat atsegin. Eta orain beste bost edo amar azalbako bialtzeko esango neuskizu, bape-re barik geratu naz-ta. Iaitxo bat egingo dogu etxean, adiskide zintzo eta euskaltzale gartsue-nen artean, gure liburuaren ateraldia ospatuteko; edari pizkat, gozokitxu batzuk eta txanpain bonbiltxu bat. Ezta izango emen egin daroezen liburu-batioak baizen ospetsua, baña gure ar-tean poz-UNETXO bat igaroteko bestekoa bai beintzet.

Tauer'en gutuna izan neban lengo batean bialdu deutsalun, gure libruagaitik eskerak emonaz. Txundituta gelditu da egin dogun lan aundi eta edefagaz. Aita Iratzeder'ek be idatzi eustan esanaz artu ebala zuk bialduta LAN OSOAK. A be ikaratuta gelditu da gure lanagaz. Irakurí neban Etxanizek Argian diñona. Eztago txarto, baña igafi igafian dago gainbe-giratu arin bat besterik eztautsoala emon gure libruari. Ezta afigaía be. Eztakit artun ete dozun ega-lontziz bialdu neutsun EMAN... gure aldizkaria. Laster agertuko da irugären zenbakia be eta bertan gure liburuaren kritikatu bat azalduko da neuk eginda. Neuk egin ezik, nok egingo leuke? Ondo dakizu zeñen diran nagi eta alpefak gure idazleak kritikak egiteko, eta zeñen lu-kuñak ganera txalo bero batzuk iñori ioteko. Eta itaunetxu bat: bialdu ete zeuntson Basáiriri ale-ren bat bere bordatxoan gure liburuaren kritikaxoren bat egin dagian? Merezi leuke ba.

Laster datorkigu Abéri eguna eta egun orekin zuri be garizuma ondoko atsedeen-aldia etoríko iatzu, ondo irabazia ganera. Niri bañiz ofantza ioateko eguna urbilduko iat. Egia esan, eztakit zer egin Eztaukat bapere gogorik emendik zirkiñik egiteko; ego-Euzkadira ioan al ba nei? Baña ipaíean geldituteko? Eztot uste merezi dabenik. Txafena zuen artean eztodala eze-lako askatasunik ikusten, ez irar-gaietan ezta bestelako zereetan. Guzúra ta abaía besterik ez-tabil or gaindi, urutietakoak etzipetzeko; Baña ni enabe atzipetzen. Fraga Iribarneren ateral-diak eta egintzak irakurí ditut; Parisko izparkari bati egin diona eta batez be katalandar iakitun ospetsu Corominas'i egin dautsona. Or askatasuna? Bai zera be... or inperua besterik eztago.

Eta amaitutera noia lanean asteko ordua dot eta. Parkatu ain labur natortzulako; úrengo luzezago.

Artuixu erbestetu onen euskal —agufik kartsuena eta Pazko Aberi-egun zoriontsu bat egin.

Onaindia'tar lagoba Abari
Lafea'n

Ene adiskide,

iaso besterik eztoz egin eta emen natortzu zure 20'ko gutun atsegiñari arápaladan erantzuten. Ondo dakizun lez, zure baliak niretzako Orilleko euritxua landarentzako baño gozuagoak izaten dira. Milesker beraz, zeure barí ederén alderako. Eta eskerák baita be, ain áreta eta ardura andiz artu dozulako niretzako bost liburuen apainketan; zer esanik bez, zure begipean apain-baño apaiñago iosiko dituela azalioztun ospetsu órek. Azalbakoak etxataz oindiño eldu; bialdu ete zenduzan? Nik baietz uste, eta igóri ezpaldin badaustazuz, amaren bat bialdu eida-zuz, beste adiskide maixagoen artean banatzeko edo saltzeko.. dubakoak, esan daroen lez, ez ei dauka esker onik-eta.

Nik esanda zuk gure liburua bialdu zeuntsenetatik batek baiño eztaust oindiño idatzi eskerák emonaz eta bera neure adiskide Mirande'tai lon izan da, besteak eztabe txintik be atara. Izan be gu alakoxe gizabidetsuak gara. Pentsaizu, illebete bada ainbat aldizkarietara aurtengo arpide-saria ordairiduz txekeak bialdu neutsezala, ordain biafaren ganetik; iñortxuk be eztaust ezer esan, eta emen nago ni arduraz bidean edo ez ete dituen ostu txekiok. Ain gara izan be gizabidean naraxak. Ni, egia diñotsut, ezin egon izaten naz zerbait bialtzen daustenei adierazo barik; egunotan artu neban Karexetaren BARRI ONA eta beriala erantzun neutson eskerák emonaz, ori gero neu be gizabidean enazala ain arduratsua.

Idatzi eustan árebeak zure ta Peñaren agertuaren bári emonaz. Pozik eta ezitian egon eizan zuekaz. Alan diñost beintzat eta liburua be zabaldu dau senitartean, illoben artean seguru be, eta beste adiskide euskaltzalen baten bati be emon deusolakoan nago. Nire árebiaren eritxian Bergilirena lako libururik eztago mundu guztian.. zer esanik bez; beste batzuk eztabe ainbestarik usteko, ez orixe. Zeruko Argian zeure aipamena besterik eztoz irakuñi gu bion liburua; Nemsioaren oindiño eztoz ezer irakuñi, ain berandu eltzen iat izparkari ori. Dana dala, pozik irakuñiko nituke agertuko liraken kritika guztiak. Eta EGAN zetan da? Betiko il ete da? Edo urtean beingo gertatu ete da? Esango daustazu. Mitxelenaren baririk be eztoz izan aspaldion: oindiño be Torrelavegan ete dago?

Gu emen aldizkaritxu bat egiten asi gara, erderaz eta euskeraz, erderaz geiago, eta lenengo zenbakia Urtañillarren asieran agertu zan eta zuri be bialdu neutsun; ez ete dozu iaso? Bigarén zenbakia be irarkolan daukagu; oraingo alea Lauaxeta zanari eskeñi dautsogu, baño iñundik bere eztoz bere argazkirik arkituten; zuk ba ete daukazu batobat? Poztuko giñake bialduko ba zeunskigu. Dakizun lez, aurten beteten dira Urkiaga erail ebenetik ogetamar urte; iges Lorcaren ogeitamárak bete zirean, eta goi erabilli eben olerkari oren izena emengo izparkarietan. Guk be zedozer egin gura Lauxetaren omenez. Urte edera auxe aren idazlanak eta argitarata bako olerkiak agertzeko.

Zorionak gizona Kolonbiko olerkarien itzulpen óregaitik. Etzaitue, óraitiño, bertanbera itziko Abrisketak eta, alako lan aundi eta edera egin ondoren. Emengo olerkariak aldizkaritxu bat argitaratuten dabe, eta noizik bein liburutxo kokkor batzuk olerkari bakañ bati eskeñita, baño beti aldizkariaren babesean. Alako batean bilduma osoa bialduko dautsut. Lanean asteko ordua dot, eta agur adiskide.

Onaindia'tár lagoba'ri
Lafean'n

Adiskide maitea,

Egia esan zure gutunaren luzeritxian egon naz, baña pozik nago orain alako idazki ederá, igaro illaren 4'koa alegia, eskuartean dodalarik. Eskeñik asko. Luzapena ezta alperékoa izan. Neuk be oi baño geitxuago luzatu dot neure erantzuna, zure Euskadira itzuleraren zain, Bartzelonako osterearen ondorean. Gutun onek etxian arkituko zaitula nik uste.

Aúfera baño len, artuixuz neure zorionik beroenak Enearena bukatu dozulako; gitxik ia-kingo dabe, zuk eta nik lez, zelako lan aundia dan Bergili'ren poema aundi ori euskeraltzea; zuk, zeuk bakañik oso-osorik egin dozulako lan ori, nik bañiz, olerkari aundi aren beste poematxo txikiak itzuli nitulako. Zorionak ba, Aita Onaindia, eta laster ikusiko al dogu irañita Bergiliren lan'aundi ori. Egia esan, ni beñipein erpai nago noiz ikusiko dodan gu bion liburu mardul ori irañita, eta kezka betean nago guk nai baño geitxuago ez ete dan belutuko irarpen ori. Dana dala eneuke gura urte au igaro daiten agertu barik. Zuk orain aspaldi liburu oren izenatzaz neure eritxia eskatu zeunstan: BERGILIREN IDAZLAN OSOAK ala beste era batera ipiñiko ete geutson liburu oñ izena. Eztakit atsegin izango ete iatzun, baña nik olantxerik aldatuko neuke liburu-izena: BERGILI'REN IDAZLANAK OSORIK. Dana dala, zeuk ikusi eta egokien deritxozuna ipiñi, eztago alde aundirik be ta bata besteagandik.

Lobeagaz bialdu zeunstan argazkiak artu nituen eta zerbait idatzi neutsulakoan nago beraietaz. Imanol Enbeitari itzi neutsozan eta oindiño es daustaz biurtu, ganera asko, illun samaiak dira eta ez dabe ondo urtengo liburuan eta argazki txárez egiñiko liburua baño, obeto izaten da bapere barik agertu. Ganera, auxe be esan biar dautsut: eztoz uste Ekiñekuek argitalduko dabenik liburu ori orain batez be Lopez Mendizabal'ek andik alde eginda gero. Neure adiskide batek erderazko liburu bat eukan an argitaratuteko, eta ezezkoa emon dautse, ori gero liburu bikaiñetan bikañena zala Unamuno eta Euskerari buruz. Ez ba arñtu argitaratuten ezpadautsue. Eskerák «Kulixka» argitaratu dozuna bilduma polita. Ikusi dot baita gogoz irakuñi be, eta olan zelanbait berbiztu dozu gure urétxindorären gomuta, ain aitzurik euki dogun urétxindor maitiarena.

JOLASKETA benetan izan iat atsegin eta ementxe nabil irakuri ta irakuri ezñitan. Lan eder eta beañezkoa egin dozu geure aurtxo maitientzat; ikastoletarako beintzet oiñañirik bikaiñena iañi dozu, eta zuk iañi oiñari sendo óren inguruan, etxerik apain eta dotoreenak iaso al izango doguz. A zelako olerki, ipuin eta iolas bilduma ederá egin dozun... Antxe arkitu dot ia aztuta geukozan adiskide batzuen izenak SISTIYA-rena esate baterako... Eta Sistiya betiko aldendu iakun euskal-arlotik orandiño be bizi añen. Beste zenbaiten izenak be aintxen arkitu ditut, bañan batez be nere adiskide aundi zen Sistiya'renak iñañosi daust neure biotz au. Zorionak bada, Onaindia maitea, alako lan ederák ari dozuzalako gure euskera érukáriaren alde.

Onaindia'tár lagoba Aba'ri
La'ra'ko Karmel-etxe
Zornotza.-

Aspaldiko adiskide:

Zure gabon-agúra poz-pozik irakúri nuen eta nik baizen pozik Auráitz gure olerkari iato'rák. Izan be, garezti saltzen dozuzan zure ba'riak beti izaten dira Maiatzeko euria ba'ño at-segiñagoak basamortu elkor onetan bizi garean euskaldunontzat: bide-ertzeko kardabera le-go'ra lez, beti egoten gara goizeko iñontz-tantaren zai geure egaría zelanbait bardinduteko, bardindu al baledi. Ortiko aize-ozki'ri barik, ito egingo giñakez gu emen.

Dakustanez, oztopo aundiak iarten dautsuez bidean zeure asmo ede'rák aúfera eroateko. Euskaltzaleon bidea izan be, malkartsua da gero! Zurea bezelako adore barik, amaikatxuk to-ton egingo eben! Eta guk ezin ezetara be amor emon! Gure izkuntza maitaga'ria beste ezer ba'ño beiñago da eta aúfera ia'faitu bear dogu «sasi guztien azpitik eta odei guztien ganetik». Amaikatxu odol-tanta itxi biarko doguz oindiño sasi artean. Ba'ña noiz edo noiz guretzako be ia'ioke da egun-senti la'ós-kolorekoa. Ez dot uste zeruko laun Aundiak gure na'kari eta aspe-ren mingotsak esku-gogoréz iñoiz iratoko dituanik, ezta gure euskera ma'itea bertan bera ilten itzi be! Nik neuk, ezin dot olakorik siñistu! Eta ementxe daragoiot gogoz neure ur'itasun aundian. Lan-arte guztiak euskera ma'iteari eskinten dautsodaz, eta beste kezkarik ez daukat ainbat denpora galtzen egotea ba'ño, bizi-bear'ák bortxatuta. Zorioneko bizi-beara! Noiz idigikio ete dira guretzako be ondasun-ituriak? Emoiguzu launa milloi bat dolar euskera iaso eta beti-ko berbiztuteko! Ez da asko!

Onezkero iakingo dozu Zaitegi Guatemalarratu zana. Auré'ri egin eutson bere azkanengo gutunean, zure aldizkari biak galazo egin zituela esaten eutson. Egia ete da? Ni ementxe nago eskuartera noiz elduko iatazan, ezin dot ezelan be sinistu olakorik-eta. Ez baka'rik ori, Karmel'erako idazlantxu bat atonduten daragoiot, eta alpefeko lanean niñarduke Zaitegi'k idatzia egia baldin bada. Aurék apain baizen argi euskeratu dau Tagore'ren «Txitra» antzerkitxua. «Egan» era bialdutekotan dabil, ez dot uste ba'ña an argitaratuko dautsenik, eta penaga'ria litzake alako lan ede'ra itzalpean gelditzea. Orain ez daukagu Euzko-Gogoarik be. Ez dakit zein diran gerorako Zaitegi'ren asmoak. Aren bariak izan ditut zearka bederik: San Antonio Aguas Calientes deritxon eritxu txiki batean ei dago txauburu. Ur berorik biarko dau gizaiuak bere biotz zauritua gozatuteko. Eta orain itaunetxu bat egin gura neuzkizu.

Ezin ete leitekez batu Enbeita'tar Kepa'ren olerki guztiak idazti apain batean argitaratuteko? Or dabilta, itoka'rean, bertsolari iñozo guztien bertsoak argitaratuten eta guk, bizkaitarok, gerizpean itzi bear ete dogu geure ur'etxindofa? Aren bertso eta olerki asko antxiñako aldi-zakarrietan sakabanatuta dabiz, Euzkadi, Euzko-Deya, Euzkera eta abar. Zeuk bildu zeinkez iñok baiño obeto, nik uste. Bere semiak be izango ditu, nunbaite be, bertsoren batzuk. Dirua neuk inguratuko neuke emen abertzeliaren artean, eta or argitaratu ezin bada bertan irariko dogu. Garaia da Muxike'ko Ur'etxindofari gorazafe andi bat egiteko, eta bere olerkiak argitaratutea ba'ño gorazafe aundiagorik bapere ez.

Onenbestez, zure bari'en zain geldituten. Agindu beti be, adiskide zar oni. Agur.